

**BAT-BATEKO BERTSOAK ETA BAKARRIZKETAK**  
**EUSKARAZ: ERREPIKAPENA AZTERGAI**

GRADU AMAIERAKO LANA

**Egilea: Gorka Pagonabarraga Agorria**

**Tutorea: Leire Diaz de Gereñu Lasaga**

Euskal Ikasketak Gradua (UPV/EHU)

2021-2022 ikasturtea

## **0. LABURPENA**

Ahozkoaren berbaldi analisiak idatziarekiko begirada eskatzen du idatzizkoaren aldean. Bi modalitateok, hizkuntza bakar eta berebean oinarritu arren, erregimen desberdinetan gauzatzen dira, ezaugarri eta baliabide bereizgarriekin (Alegria, 2009). Ezaugarri edo baliabide horietako bat dugu errepikapena, izaera eta funtzio askotarikoak erakusten dituen, osagai baztergarri izatetik urrun.

Izan ere, azken bi hamarkadetan egin dira bereziki diskurtsoaren analisiaren azterketan euskararen arloan, eta errepikapena bezalako fenomenoak, garai batean ahozkoaren zabarkeria edo akastzat hartuak, ahozkoaren argitara aztertu dira, bere agerpen eta funtzioak deskribatu eta zehaztuz (Larringan eta Idiazabal, 2008). Bestek beste, erakutsi da testu-generoaren arabera errepikapenak forma eta funtzio bereizgarriak har ditzakeela. Esaterako, Gutierrezek (2019) kazetaritza genero bitan errepikapenaren gauzatze diferentea erakutsi eta errepikapena huskeria eta akatsa izatetik urrun, generoaren araberrako funtzio zehaztutara lotua agertzen dela egiaztatu du.

Gradu amaierako lan honetan, bi generori erreparatu nahi zaie, errepikapenaren erabilera aztertzeke eta haren funtzionamenduaren ezagutzan sakontzeke. Umorezko bakarrizketak eta bat-bateko bertsoak dira hautatu diren generoak, guk dakigula euskaraz aztertzeke daudelarik, ildo horretan ekarpen xumea egiteko asmoz.

Atal bi izango ditu lanak: teorikoa eta praktikoa. Aurrenekoa errepikapenaren zedarritze teorikoa izango da. Ikusiko denez, ahozko solasean, errepikapena baliabide ohikoa da: batetik, mezu linguistikoaren eraketa eta egituraketan, eta bestetik, elkarrizketako partaideen arteko erlazio interaktiboan parte hartzen du (Garcés, 2004). Gauzak horrela, lanaren marko teorikoa ezarri, errepikapena mugatu eta deskribatu eta ahozko zenbait erabileretan agertzen diren errepikapen motak eta betetzen dituen funtzioak ere deskribatuko dira. Azkenik, umorezko bakarrizketak eta bat-bateko bertsoak ere deskribatuko dira, testu-genero lez zerk ezaugarritzen dituen ezagutzeko.

Bigarrenik, aipaturiko testu-generoetan errepikapenak aztertzeke erabili den corpusa eta metodologia aurkeztuko dira, eta horren arabera lorturiko emaitzak erakutsi. Emaitzetatik ondorioetara bidean, generoen arteko eraketa egingo da. Hipotesi gisa esan daiteke, aztertutako testu guztietan errepikapenak bere lekua izango duela uste dugula, baina bakoitzaren ezaugarrien arabera, hots, testu-generoaren arabera, bakarrizketa edo

bertsoa izan, errepikapen mota diferenteak aurkituko direla, testu-genero bakoitzaren araberako funtzio diskurtsiboetara lotuta beti ere.

## AURKIBIDEA

<b>0. LABURPENA</b> .....	1
<b>1. SARRERA</b> .....	4
<b>2. ATAL TEORIKOA</b> .....	4
<b>2.1 Errepikapena, diskurtso edo interakzio mailan: Definizioa</b> .....	5
<b>2.2 Errepikapen motak</b> .....	6
<b>2.3 Errepikapenaren funtzioak</b> .....	9
<b>2.4 Generoaren garrantzia</b> .....	11
<b>2.4.1 Mintzaira ekintza eta testu-generoa</b> .....	11
<b>2.4.2 Umorezko bakarriketak</b> .....	13
<b>2.4.3 Bat-bateko bertsoak</b> .....	14
<b>3. ATAL PRAKTIKOA</b> .....	15
<b>3.1 Azterketaren helburua</b> .....	16
<b>3.2 Corpusa</b> .....	16
<b>3.3 Azterketa metodologia</b> .....	18
<b>4. AZTERKETAREN EMAITZAK</b> .....	19
<b>4.1 Umorezko bakarriketak</b> .....	19
<b>4.2 Bat-bateko bertsoak</b> .....	23
<b>5. ONDORIOAK</b> .....	26
<b>6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b> .....	27
<b>7. ERANSKINAK</b> .....	28
<b>ERANSKINAK 1: CORPUSA</b> .....	28

## **1. SARRERA**

Ahozkoan erabiltzen diren errepikapenak ditu oinarri Gradu Amaierako Lan honek. Sarritan hartu izan da errepikapena hiztunaren baldreskeriatzat (Larringan eta Idiazabal, 2008), baina erabilera konkretuak eta funtzio zehatzak dauzkala erakutsi izan da hainbat lanetan (Gutierrez, 2020); izan ere, ezinezkoa da ahozkoa errepikapena kontuan hartzeke ulertzea (Alegria, 2009). Hori erakustea nahi genuke geuk ere, erabilera modu batzuetara mugatuz, erakutsi bait, mintzajardun motak baduela zerikusirik errepikapen motekin.

Lanaren helburu nagusia, errepikapenaren ikuspegitik aztertu gabe dauden bi testu-generoren azterketa enpirikoa egitea da: Umorezko bakarrizketena eta bat-bateko bertsoena. Horretarako, corpusa jaso eta lagina osatu dugu, bertan ageri diren errepikapenak identifikatu, sailkatu eta aztertzeko. Hipotesi honekin egin dugu lan: Aztertutako testu guztietan errepikapenak bere lekua izango duela pentsatzen dugu, baina bakoitzaren ezaugarrien arabera, hots, testu-generoaren arabera, bakarrizketa edo bertsoa izan, errepikapen mota diferenteak aurkituko direla, testu-genero bakoitzaren arabera funtzio diskurtsiboak lotuta beti ere.

Lana bi ataletan egituratuta dago. Lehenengoa atal teorikoa da; errepikapenaren zedarritze teorikoa egin eta errepikapenaren zein definizio lotu gatzazkion azalduz eta ahozko hizkuntzan deskribatu diren hainbat errepikapen mota eta funtzioen berri emanez. Modu berean, umorezko bakarrizketea eta bat-bateko bertsoek, mintzajardun bereizgarriak diren aldetik, genero gisa dituzten ezaugarrien zedarritze laburra ere egingo dugu, euskararen kontestu soziokulturalean kokatuta.

Bigarrenik, atal praktikoan, azterketaren helburua zehaztuko dugu, darabilgun hipotesiaren eta horretara bidean erantzun beharreko galderen eskutik. Azterketa egiteko erabiliko dugun corpusa ere aurkeztuko dugu, corpuseko testuetan errepikapena aztertzeko eraiki den metodologiarekin batera. Jarraian genero bakoitzaren azterketara egingo dugu jauzi. Lortutako emaitzen ondotik genero bien arteko eraketa egingo da eta ondorioekin itxiko dugu atala.

## **2. ATAL TEORIKOA**

Hurrengo orrialdeetan beharrezko zaizkigun oinarri teoriko horiek ezarri eta zehaztu nahi dira, errepikapena zer den, zer-nola mugatu eta ulertuko den eta ahozkoan bete ohi dituen funtzioak landuz. Halaber, ahozko euskara oinarri hartuta errepikapenari

buruz egin diren azterlanen arrastoan kokatu nahi da lana, betiere generoaren itzalpean. Hiru azpi-atal nagusitan banatu da atal teorikoa.

Lehenik eta behin, errepikapena mugatu eta haren diskurtso edo interakzio mailako egitekoak eta garrantzia azpimarratuko ditugu, fenomenoari ikuspegi pragmatikotik erreparatuta.

Atala osatzeko, eta aukeratu den corpusaren izaera argitzeko asmoz, atal enpirikoan aztertuko ditugun generoen inguruan zenbait zertzelada emango ditugu, umorezko bakarrizketak eta bat-bateko bertsoak genero gisa zerk ezaugarritzen dituen ikuste aldera. Aurretik, corpus jakin hau osatzen duten testuen azterketarako interakzionismo sozio-diskurtsiboak proposatzen duen “goitik-beherako” (Larringan, García-Azkoaga eta Díaz de Gereñu, 2020) ikuspegi teorikoa hartu eta berau mugatuko dugularik.

## **2.1 Errepikapena, diskurtso edo interakzio mailan: Definizioa.**

Errepikapena hala ahozkoan nola idatzizkoan agertu eta erabiltzen den gertaera linguistikoa da; eta Gárcesek esan gisan (2004), lehenagoko enuntziatu edo segmentu bateko elementuak edo elementu batzuk berriro ere adieraztean datza. Fenomeno hedatua bezain bazter utzia eta paradoxikoa da Camachoren (2009) ustez, eta askotariko generoetan agertu arren, era isolatu eta independentean izendatu eta aztertu izan da kasurik onenean. Autorearen arabera, literaturaren kontu eksklusibotzat hartzen diren anaforak, esaterako, barra-barra erabiltzen dira lagunarteko hizketatan edo iragarkietan, eta errepikapen guztiak diskurtsoaren aterkipean aztertzeko hautua egiten du.

Errepikapena aztertzeko Camachok (2009) ikuspegi pragmatikoari heltzen diolarik, enuntziatu osoei erreparatzen die hitzen analisi hutsetik harago. Horrek, jakina, ondorio ezberdinetara darama azterketa, eta adibidez, errepikapenek beti aldaketa pragmatikoren bat dakartelako ideia azpimarratzekoa gertatzen da. Alegia, egilearen arabera ez dago errepikapen pragmatikorik zentzu hertsian; norberak edo interlokutoreak esaniko zerbait berriz adierazten denean, sekula ez da jatorriz zeukan zentzu pragmatiko berarekin esaten. Adibide hau dakar:

**H1: toma / coge esto**

**H2: toma coge esto / toma coge esto / toma coge esto ¿pero esto qué es?**

(Camacho, 2009: 14)

Argi ikusten da segmentua bigarrenez agertzen denean lehenengoan ez zeukan informazioa ematen duela. Hortaz, gaia ikuspegi pragmatikoaren landuz gero, errepikapena birformulaziorako prozeduratzat hartu behar da, hala hartzen du Camachok (sic.) eta halaxe hartuko da lan honetan ere.

## 2.2 Errepikapen motak

Errepikapena fenomeno ugaria eta askotarikoa da eta errepikapen motak sailkatzeko hainbat saiakera egin izan dira. Lan hau egiteko aintzat hartu ditugunak aurkeztuko ditugu ondoren, eta bai testu dialogiko eta bai testu monologikoagoetan aztertu izan diren errepikapen motei erreparatuko zaie. Ikusiko denez, testuaren izaera monologiko edo dialogikoak badu eta zeresana errepikapenaren funtzionamenduan. Edonola ere, gogoratu behar da, testu oro dela diskurtso osaeran konplexua eta generoaren eta testu zehatzaren arabera agerpen eta maiztasun ezberdina izan dezaketela errepikapen motek.

Garcések (2004) lau irizpide ezarri eta horren araberako sailkapena egiten du errepikapen motak bereizterakoan eta solasaren azterketan:

- a. Lokutoreak berak ala solaskide batek egin duen, auto-errepikapenak eta hetero errepikapenak bereizten ditu hurrenez hurren. Horien barruan lokutoreak berak abiarazi eta gauzatuei auto-abiatu esaten die eta errepikapena lokutoreak esandakoaren erreakzio moduan sortzen direnei hetero-abiatu.
- b. Hitz eta doinu berberak erabilia egin diren ala ez, hitzez hitzekoak eta hitzez hitzekoak ez direnak ezberdintzen ditu.
- c. Errepikapen totalak eta partzialak ere aipatzen ditu, errepikatutako zatia bere osotasunean errepikatzen den ala ez ikusita.
- d. Errepikatzen den segmentua jatorrizkoaren jarraian datorren ala ez, berehalakoak eta distantziara eginikoak bereizten ditu.

Zer dio Garcések (2004) mota bakoitzaz? Auto-errepikapen auto-abiatuak errepikatutako elementua indartzeko egin ohi dira. Hona adibidea:

C: el alquiler de la casa // aquí **se paga** ‘ **se paga se paga se paga se paga y se paga.**

(Garcés, 2004: 440)

Ostera, auto-errepikapen hetero-abiatuak interlokutoreak eragiten ditu lokutorearen diskurtsoan. Hurrengo adibidean, interlokutoreak lokutorearen galderari zuzenean erantzuten ez dionez galdera errepikatzea eragiten du:

H1: ¿**Has hecho fotos?**

H3: ¡Un ambiente...! ¡Niebla!

H1: ¿**Has hecho fotos?** ¿**Y has hecho fotos** a Montse?

H2: No.

(Garcés, 2004: 441)

Hetero-errepikapenak, aldiz, interlokutoreen arteko mezuaren hartu-emanaren argitu ohi dute. Hurrengo adibidean elementu fatiko baten bitartez konfirmazioa eskatzen du lokutoreak, zeina errepikapenaren bidez gauzatzen duen interlokutoreak:

A: **y se compra** ¿no? nada más

C: **y se compra** y ya está.

(Garcés, 2004: 440)

Hitzez hitzekoak eta totalak auto-errepikapenetan ohikoagoak direla azpimarratzen du autoreak. Halaber, hitzez hitzekoak ez direnak eta errepikapen partzialak solasak aurrera egin ahala elementuak gehitzeko edo kentzeko nola lokutoreak hala interlokutoreak gauzatu ohi dituzte. Berehalakoen eta distantziara eginkoen kasuan dio, batera zein bestera gerta daitekeela errepikapena, bereziki errepikatzen den elementua, hitza izan zein segmentua izan, elkarrizketako gaia bada, zeinera interlokutoreak zuzentzen diren.

Ikusi berri dugun sailkapena ahozko solas arruntaren azterketari erreparatuz egina da, erabilgarria dialogalak diren testuak edo atal dialogikoak dituzten testuak aztertzeko. Baina izaera monologikoagorik testu-generoen kasuan bestelako sailkapenak proposatu izan dira, errepikapenaren gauzapena askotarikoa izanik. Esaterako, kontaketa edo narrazioak aztertzerakoan, hetero errepikapenak ez dira hainbeste agertzen, solas atalak mugatuak baitira kontaketa zehar; ordea, beste errepikapen mota batzuek hartzen dute pisua (García Azkoaga eta Diaz de Gereñu, 2009: Diaz de Gereñu & Garcia-Azkoaga, argitaratzeko).



Hain zuzen, García Azkoaga eta Díaz de Gereñuk (2009) egindako kontakizunen analisiaren arabera, ahozko mintza jardunean kohesioa baliabide sintaktikoez gain elementu anaforikoen bitartez edo testu barneko kate erreferentzialen bitartez testuratzen da, eta horretan berebiziko zeregina dauka errepikapenak. Labur esanda, kohesioa aztertzerakoan argi ikusten da errepikapena kohesiorako ezinbesteko baliabidea dela. Ohiko adierazpide anaforikoak, errekurtsio estetiko poetikoak eta interakzioaren kontestuari dagozkion adierazpide erreferentzialak aipatzen dituzte, errepikapenarekin estuki lotuak. Ohiko adierazpide anaforikoen barruan hiru azpi-talde hauek bereizten dituzte:

a. Pronominalizazioak.

Adb: [... neskabila bat ... bere izena Fatima] (sic.: 737)

b. Errepikapenak:

- Aurrekarien errepikapen hutsak edo artikularekin berrartutako sintagmak.

Adb: [... gizon bat ... gizona ... gizon hori] (sic.: 737)

- Aurrekariaren errepikapen partzialak edo zabalak.

Adb: [... gurutze batzuk... gurutze handi hoiei begira gure gizonak ...] (sic.: 737)

c. Ordezkatze lexikoak: Hauen barruan sinonimo diskurtsiboak, hiperonimoak, hiponimoak, anafora kontzeptualak eta asoziazio bidezko anaforak bereizten dituzte.

Hiperonimoen adibide bat: [...oilarra... txori horrek...] (sic.: 737)

Anafora kontzeptualen adibide bat: [... igitai bat... tresna txar hau...] (sic.: 737)

Errepikapena kohesioan baliabide garrantzitsua argi dela erakutsi ondotik, berariaz errepikapena aztertzerako jo dute aipatu autoreek (sic.); ahozko kontakizunak hautatu dituzte horretarako, eta testu-genero horri lotuta errepikapenaren agerpena eta bere mota eta funtzio askotarikoak zehaztu dituzte. Argitaratzekoa den ikerketan (Díaz de Gereñu eta García Azkoaga, argit.) pertsonaiaren erreferentzia eraikitzerakoan errepikapen mota ezberdinak identifikatuz, kontaketa generoari lotuta errepikapen erabilera jakinak eta bereizgarriak deskribatu dituzte.

Errepikapen motekin amaitzeko, ez genuke Alegriaren (2009) lana aipatzeke utzi nahi. Errepikapen lexikoei erreparatu zien lan horretan, ahozko modalitatearen

koherentzia sintaktikoaren ikuspegitik. Alegia, errepikapenak sintagma mailan duten agerpenaren arabera aztertu eta sailkatu zituen, errepikatutako unitateen eskema edo egiturak ahozkoaren sintaxian identifikatzen diren leihokatze mota desberdinak kontuan hartuta. Gero bere sailkapena proposatzerakoan, Alegriak (2009) hiztunak borondatez eginikoak eta borondatez kanpo eginikoak izendatu zituen. Izan ere, bere esanetan errepikapen batzuek agerian uzten dute mintzakidearen nolabaiteko borondatea:

Adib.: noiz botatzen iozu **ho(r)i** fugizida **ho(r)i**?

(Alegria 2009: 789)

Besteak ostera, mintzakidearen borondatetik kanpo daude erabat eta lau taldetan azpi-sailkatzen ditu (Alegria, 2009):

- a. Zalantzazko une batean denbora hartzeko eginikoak.
- b. Emozioen batek eragindakoa, izan beldurra, poza, haserrea zein beste edozein.
- c. Arrazonamendu baten etapa ezberdinak markatzen dutenak.
- d. Lexikalizatuak. Erabiltzearen erabiltze hitz soil bezala hartzen direnak.

### 2.3 Errepikapenaren funtzioak

Errepikapen motekin gertatzen den moduan, errepikapenak betetzen dituen funtzioak identifikatu eta sailkatzeko momentuan ere askotariko emaitzak agertzen dira, beti ere, elkartruke komunikatiboaren eta berau gauzatzeko orduan nagusitzen den generoaren arabera agertu ere. Garcésék (2004: 445) zera dio: Errepikapenaren azterketan, fenomenoaren aniztasuna eta askotariko erabilerak islatuko dituen funtzioen tipologia bat ezartzea da auzi zentrala. Hortaz, geuretzat ere, oso kontuan hartzekoa da errepikapenaren funtzionalitate askotarikoa.

Errepikapenaren definizioaren bila Camacho (2009) izan dugu zedarri nagusi, eta funtzioak zehazteko bidea ere bere eskutik hasiko dugu. Errepikapenak bete ditzakeen funtzioak bitan banatzen ditu autoreak. Batetik funtzio interaktiboak geneuzkake, interlokutoreen arteko giza harremani lotuak, zeinek hiztunen jarrera eta helburuak argitzen dituzten. Giza harreman dioenean harreman sozial, psikiko, afektibo eta abarrez ari da, orokorrean. Dio, funtzio horiek aztertzeke orduan, kortesiari buruz eginiko lan guztiak bereziki lagungarri direla. Bestetik, funtzio testualak aipatzen ditu, errepikapenak hizkuntzaren egituraketan izan ditzakeenak, beti ere, hizkuntza perpausetik harago doan sistema dela ulertuta.

Garcésen (2004) sailkapenak ere antzeko norabidea du. Funtzio testualak eta interaktiboak aipatzen ditu, eta bi horiei elkarrizketa funtzioak gehitzen dizkie.

- a. Funtzio interaktiboak: Esan bezala, solaskideen harremanak argitzeko zeregina izan dezake errepikapenak. Talde honetan adostasuna adieraztea eta desadostasuna adieraztea bereizten ditu autoreak.
- b. Elkarrizketa funtzioak: Hitz txandak lokutoreak solasaren momentu batean egiten dituen ekarpenak dira. Hain zuzen, hitz txanda horiekin edo hizketaldiaren balio dialogikoarekin loturiko funtzioak sartzen ditu bigarren multzo honetan.
- c. Funtzio testualak: Informazioaren antolaketan lagundu eta sekuentzien arteko kohesioa ahalbidetu dezake errepikapenak. Lehenago erabilitako errepikapenak modu egonkorrean errepikatzeak, hizketaldiaren garapenari egonkortasuna ematen dio eta kohesioa bermatzen du.

Larrazabal eta Larringanek (2007) bi ataletan banatutako sailkapena proposatu zuten errepikapenaren funtzioak sailkatzeko orduan: solaskidetzarekin lotutako funtzioak eta garapen tematikoarekin loturikoak. Sailkapen horrexetatik abiatu da Gutierrez (2019) kazetaritza genero biren errepikapenak aztertzeke lanean. Corpusaren hasierako azterketan funtzio guztiak sailkapen bitar horretara errenditzeko zailtasunak medio, dena den, hirugarren kategoria bat sortu behar izan du. Bestelako funtzioak batu ditu hirugarren multzo horretan.

Gutierrezen (2019) lanean, garapen tematikoarekin loturikoetan diskurtsoa garatzea, hitz txanda hartu eta horretatik abaituta hitz hartzea garatzea edo esandakoa laburbiltzea bezalako funtzioak zeuden. Hona diskurtsoa garatzearen adibide bat:

A: jendartearen lehentasunak aldatu egin ziren / baina guk jarraitu genun gure **agendarekin** eta beraz guk geneukan **agenda bat** / baina **herriak** beste **agenda bat** zeukan eta **herri** hau aldatu nahi dugunak **agenda herriarekin** egin behar dugu / herriarekin batera. (sic.: 18).

Solaskidetzarekin loturiko funtzioetan, berriz, solaskidetzaz jarraitzeko galdera erretorikoak, hitz-txanda hartu eta horretatik abaituta hitz hatzea garatzea, aukezte eta agurtzea eta hizketako hutsuneak betetzea biltzen ditu. Hona hemen aurkeztu eta agurtzeko errepikapen baten adibidea:

MI: esan bezala **Arnaldo Otegi** dagoeneko **Azpimarraren** sofa gorrian jesarrita / **Arnaldo Otegi** / gabon eta milesker **Azpimarrara** etortzeagatik (sic.: 20)

Azkenik, hirugarren funtzio taldean bildu bitu bestelakoak: Indargarriak, pentsatzeko edo diskurtsoa eraikitzekok denbora egiteak eta akatsen zuzenketa. Akatsa zuzentzeko egindako errepikapen baten adibidea dakargu:

A: eta orduan ekingo diogu gure herriaren **berresku** / **berreuskalduntzeari** (sic.:21)

## **2.4 Generoaren garrantzia**

Badirudi genero bakoitzaren helburuak funtzio jakin batzuen agerpena bideratzen dueala, Gutierrezen (2019) lanak erakusten duen gisan. Hortaz, errepikapena diskurtsoaren orokortasunean azertu arren, beharrezkoa da aztertuko dugun generoari erreparatzea, aurrez aipatu gisan, besteak beste Alegriak (2009) adierazi bezala, bai baitakigu testu-generoak eragina duela testuaren ezaugarri komunikatibo, testual, diskurtsibo eta linguistiko guztietan, errepikapenean barne.

Hortaz, komeni da genero horiek zedarritzea, bakoitzaren ezaugarri komunikatibo eta linguistiko aurreikusgarriak identifikatzeko. Genero bakoitzean banan bana murgildu aurretik, lagungarri zaigu generotasunean eta mintzaira-ekintzan gehixeago sakontzea, geure burua interakzionismo sozio-diskurtsiboaren iker-moldean kokatu eta generoari garrantzia zergatik ematen diogun argitzeko.

### **2.4.1 Mintzaira ekintza eta testu-generoa.**

“Egoeraren eta hizketa-ekintzaren ezaugarrien arabera igorleak hautatzen duen testu tankerari deritzo generoa” (Larringan, García Azkoaga eta Díaz de Gereñu, 2020). Hizkuntzara hurbiltzerakoan hiru puntu azpimarragarri aipatzen ditu autore horien lanak: mintzaira, testua eta definitu berri dugun generoa. Elkarreraginean dauden hiru puntu horiek erreferente dira giza hizkuntza azaltzeko orduan eta irudi geometriko honen bidez isla daitezke:



(Larringan, García-Azkoaga eta Díaz de Gereñu, 2020: 120)

Triangeluak erakusten duen moduan erreferentziazko hiru aldeak beren artean konbinatzen dira, elkarreaginez. Horrela mintzaira-ekintzara hurbiltzeko beharrezko da testura jotzea eta, halaber, generoarekin egiten dugu topo testu orotan.

Mintzaira diogunean giza jardueraz ari garela diote Larringan eta bestek (2020), giza jarduera guztietan ugariena eta bereziena den ekintza horretaz. Haien esanetan, hitz egitea zerbait esatea baino zerbait egitea da; eta egite horri esaten diote mintzaira-ekintza. Aldiz, testua, “hitzezko jardueren eta ekintzen gauzatze edo materializazio enpirikoa” da, “hitzezko ekintzaren lorratz edo aztarna materiala” (sic: 121). Ondorioz, ezinezkoa da lengoia bere horretan harrapatzea, zerbait ukigarria bailitzan; testuen bidez, zeharbidez, iristen gara lengoaira. Hala berean, ikerlari horiek diote lehen begiratuan hiztuna testuaren egile bakarra dela eman dezakeen arren, hizkuntzaren erabilera erreal guztiek testuinguru jakin eta konkretu bat daukatela. Zera azpimarratzen dute: Hiztuna ez dela, inondik inora, autonomia inguruarekiko.

Gauzak horrela, aipatu autoreen arrazoibideari eutsiz (sic.), testuinguru bakoitzean testu molde ezberdina aukeratu beharra dauka hiztunak bere mintzaira-ekintza bideratzeko, eta molde horietako bakoitza da testu-generoa. Esanahi semiotiko konkretua esleitu dio gizartean erabiltzeak generoari. Hau da, bizitzan gertatzen diren komunikazio zeregin errealak bideratzeko landu dira generoak, eta genero bakoitza bere helburu edo beharizanen araberrakoa da. Ez da gauza bera okindegian ogia eskatzea, klasekideen aurrean aurkezpena egitea edo epaitegian akusatua defendatzea, bistan da.

Testu molde horiek oso diferenteak diren arren, ezaugarri amankomunak ere badituzte, gizartean esanguratsuak bilakatu diren ezaugarriekin lotuak, exigentzia sozial konkretuei erantzuten dietenak alegia. Honako konstanteotan antzeman ditzakegu ezaugarri amankomun horiek: Azpiegitura bertsua, antolamendu aurreikusgarria, era jakin bateko testu antolatzaileak, modu bereko kohesio mekanismoak, adizkera, etab. Testuaren genero izaera ezaugarritzen duen konfigurazioa osatzen dute, eta aipaturiko lanaren esanetan (sic.) ikerlariari dagokio konfigurazio hori antzematea.

Gure azterketara etorrira, azpimarratu nahi nuke umorezko bakarrizketek eta bat-bateko bertsoek, aldeak alde, badaukatela ezaugarri komunik. Publikoaren entretenimendua da helburu nagusia bietan, eta jakina, aurretiazko prestakuntza eskatzen du helburu hori bete nahiak. Izan ere, Larringan eta Ozaetak (2012) argitzen digutena kontuan hartuta, errepika dezagun ahozko testua izateak ez duela halabarrez esan nahi informala edo antolatu gabea denik. Halaber, genero biak autoreak sortu ahala jasotzen ditu publikoak eta hein horretan, Zumthor (1983) ikerlariaren *performance* kontzeptuan kokatu ditzakegu biak. *Performance*-ean lokutorea, hartzailea eta zirkunstantziek bat egiten dute une eta leku berean helburu estetikoak dituen elkartruke komunikatibo batean.

Dena den, desberdintasun agerikoak ere badituzte, jakina, hurrengo ataletan zehazten saiatuko garenak.

#### **2.4.2 Umorezko bakarrizketak.**

Euskaraz aztertzeke dagoen testu-generoa izan arren, ikuspegi askotatik izan dira aztertuak umorezko bakarrizketak, baita lan honen marko pragmatiko berean ere. Esaterako, Ruiz Gurillok (2012) umorezko bakarrizketen estrategia narratiboa testu-genero eta erregistroaren arabera zehaztu zuen lan batean, eta beste batean, bakarrizketa egile espainiarren kasu konkrituak aztertu ditu (2013). Halaber, Linaresen bakarrizketetako baliabide edo estrategia gisa atenuazioa (2018) eta diskurtso zuzena (2020) zelan gauzatzen diren izan du hizpide.

Lan horiek guztiek azpimarratzen dute nolabaiteko bikotasun bat bat-batekotasun espontaneoaren eta diskurtso planifikatuaren artean, baliabide kolokialen agerpenarekin batera. Linaresen (2018) dio, batetik, orain eta hemen gauzatzen den testu-generoa izaki, bat-batekotasun komunikatiboa aitortu ahal zaiola umorezko bakarrizketari, eta halaber, hizketan ez dagoela txanda hartze aurrez determinaturik, publikoak nahi bezala erantzun eta eragin dezakeelako. Aitzitik, publikoaren dibertsioa helburu denez, dramatizazioaren

aurreko planifikazio handia eskatzen duela era honetako testuen ekoizpenak diosku autoreak, eta modu berean, ohiko elkarrizketa informalen aldean ezaugarri kolokial diferenteak agertzen dituela. Izan ere, ez da marko interaktibo kolokial ohikoan gauzatzen, publikoak parte har badezake ere, bakarrizketa egilea da diskurtsoaren eritmoaren eta gaien gainean erabateko kontrola duena. Hein horretan, bakarrizketen kasu konkrituak aztertzerakoan, Ruiz Gurillok (2013) bost auzitan jartzen du begia: Planifikazioa, bat-batekotasuna, aurrez aurreko interakzioa, elkarreragina eta audientziarekiko dinamikotasuna.

Linaresek atenuazioa (2018) eta diskurtso zuzena (2020) umorezko bakarrizketetan erabiltzen diren estrategia diskurtsiboak direla erakutsita, errepikapenaren kasua aztergai interesgarria izan daitekeela uste dugu, fenomeno hori ere haien parean jar daitekelakoan.

Euskarazko bakarrizketek azkenaldian izan duten loraldia aipatu beharrekoa da. Estatu Batuetan hedatua dagoen *stand-up* komedia geurera ekartzen saiatu izan da zenbait umoregile. Euskara eremu berrietara moldatu eta beharrezko tresnak garatzeko saiakera kontzientea da, inondik ere. Horren inguruan *Berria* egunkarian egin zioten elkarrizketa batean generoaren definizioan aurrez esan duguna berresten duen hau esan zuen Telleriak<sup>1</sup>.

“*Stand-up*-aren oinarrian badago aurretiazko prestaketa oso zorrotz bat, baina gero eszenaratzeak espontaneoak izan behar du, edo itxura hori izan: amarru moduko bat da. Zu etxean erotu zaitezke hitz bat non jarri pentsatzen, baina gero jendeari eman behar diozun inpresioa da: «Bat-batean okurritu zaiou».”

### 2.4.3 Bat-bateko bertsoak.

Bertsolaritzaren definizio aintzindarietako bat Xabier Amuriza bertsolari bizkaitarrak bertsotan emana da:

«Hizketan lerratzen da gizonen bizitza,

jolas edo jokoan pozago gabiltza.

Neurriz eta errimaz kantatzea hitza

horra zer kirol mota den bertsolaritza» (In Etxebarria eta Kaltzakorta, 2009: 46)

---

<sup>1</sup> Sarean eskuragarri. Umoreaz, serio < <https://www.berria.eus/ahomentan2021/09/05/umoreaz-serio.html>>

Hitz lauetara itzulita, Euskaltzaindiaren Literatura Terminoen hiztegiak dio (urtea:orrialdea) bertsolaritza jende aurrean kantaturiko ahozko estiloko euskal literatura dela, gehienetan bat-batean eginiko jardura poetikoa. Neurri jakin bat eta errima kontsonantea errespetatuta kantatzeko eginiko sorkuntza poetikoak dira bertsoak hortaz. Esan bezala, bertso-idatziak edo jarrien generoa oparoa den arren, bertsolaritzaren barruan bat-bateko bertsoak edo inprobisatuak hartzen du zentralitatea, hau da, kantatu ahala sortzen diren bertsoek. Ez bertsolaritzaren barruan bakarrik, Etxebarriak eta Kaltzakortak (2009:47) bat-bateko bertsoa “euskal ahozko literaturan adierazpenik berezkoena” dela diote, eta beraien esanetan ikerlari eta aditu kanpotarrek bat-bateko bertsoekin identifikatzen dute zuzenean ahozko euskal literatura.

Aipatu ikerlarien lanarekin jarraituz, saio tankeren arabera batzuetan bertsolariak euren kabuz aritzen diren arren, beste askotan gai-jartzaile batek zeri buruz kantatu aginduta aritzen dira; ohitura hau, modernoa izanagatik, gerra zibilaren ostekoa baita, gaur egun nagusitzen den estiloa da. Horrela, bertsolariek izan bakarka zein binaka (baita talde handiagoetan ere) gai jartzaileak proposatutako gaiaren inguruan inprobisatzen dituzte bertsoak. Gai-jartzaileak bertso saio hauei, areto, frontoi zein kaleko agertokietan eginak, jaialdi esaten zaie eta horrelakoxeak dira Bertsozale Elkarteak urtero biltzen duen *Bapatean* antologiarako hautatuetatik gehientsuenak.

Telleriak bakarrizketetarako zioena hitzez hitz ekarri daiteke bat-bateko bertsoetara: Hizkuntzaren erabilera ludikoa egiten da bertso inprobisatuetan, publikoa entretenitzea eta publikoan eragitea du helburu nagusi, eta hortaz, aurretiazko lanketa sendoa beharrezkoa da. Hala, identifikatuko ditugun ezaugarri linguistikoak aldeztatik zehazki pentsatu gabeak izanagatik oso landuak izango dira.

Esan dugu bertsolaritzak leku garrantzitsua izan duela euskal literaturaren barruan; bada, baita euskal gizartean eta euskalduntzean ere. 80ko hamarkadatik aurrera bertso-eskolak sortu zirenetik mugimendu antolatu eta egituratua osatu dute, milaka haur bertsozaletzeko ez ezik euskalduntzeko funtzioa bete dutelarik. Beraz, aipatu bi genero hauek edozein gizartetan performance gisa identifikatzen diren funtzio ludikoak izateaz gain, badute euskararen nomalkuntza eta biziberritzean berariazko lekua eta egitekoa.

### **3. ATAL PRAKTIKOA.**

Ezarri ditugu beharrezko uste genituen oinarri teorikoak. Horren gainean ekingo zaio atal praktikoari hurrengo orrialdeetan.



Honelaxe egituratu da atal praktikoa. Hasteko eta behin, azterketaren helburu nagusiaren berri emango dugu, helburuaren eskutik hipotesia eta azterketa galderak ekarrita. Ondoren, lagintzat daukagun corpusa aurkeztuko da. Azterketa metodologia zehaztuko da hurrena, ze errepikapen motari erreparatuko diogun. Jarraian, azterketan lortutako emaitzak ekarriko dira bi multzotan: lehenik testu genero bati dagozkionak eta besteari dagozkionak gero. Behin bataren eta bestearen emaitzak aurkeztuta, emaitza horien gainean gogoetatuko dugu, genero bata bestearekin alderatuz.

### **3.1 Azterketaren helburua**

Euskarazko ahozko bi generotan errepikapenaren agerpena eta errepikapen motak aztertzea da lan honen helburua. Gure hipotesia honakoa da: Aztertutako testu guztietan errepikapenak bere lekua izango duela pentsatzen dugu, baina bakoitzaren ezaugarrien arabera, hots, testu-generoaren arabera, bakarrizketa edo bertsoa izan, errepikapen mota diferenteak aurkituko direla, testu-genero bakoitzaren arabera funtzio diskurtsiboetara lotuta beti ere. Hipotesi hori baieztatzeko honako galdera hauei erantzutea da azterketaren xedea.

- Ze errepikapen mota agertzen dira?
- Ba al da generoaren arabera bereizgarrikerik errepikapenaren gaiztatze diskurtsiboan?
- Alderik egotekotan, zerk eragina da aldea? Ba al du loturarik errepikapen mota bakoitzak genero bakoitzean betetzen duen funtzioarekin?

### **3.2 Corpusa**

Umorezko bakarrizketak aztertzeko ETB1eko *Barre Librea* programako hainbat saiorekin osatu dugu corpusa. Aitziber Garmendia eta Jon Plazaolak aurkeztutako saioa da *Barre Librea*, umorezko bakarrizketa eta esketx laburrez osatua. Saioko lau gonbidatu izaten dituzte, eta nola aurkezleek hala gonbidatuek bakarrizketa bana egiten dute, bost eta hamar minutu artekoa. Bakarrizketetan arituenak izaki, Garmendia eta Plazaolaren bakarrizketa bana eta Antton Telleria gonbidatuaren bi bakarrizketa hautatu ditugu, lau guztira, generoaren lagin adierazgarria osatu dugulakoan.

Behin bakarrizketak aukeratuta, transkripzio irizpideak finkatu<sup>2</sup> eta testuak transkribatu ditugu, errepikapenak identifikatzeko eta azterketa ahalbidetzeko lagina

---

<sup>2</sup> Val.es.co taldearen transkripzio irizpideak hartu dira oinarri transkripzioa egiteko. Sarean eskuragarri: <<https://www.uv.es/valesco/sistema.pdf>>

osatze aldera. Laburdura bakoitza bakarrizketa bati dagokio. Era berean, lan honen 1. Eranskinean gehitu diren transkribaketetan bakarrizketok ze lerrotan aurki daitezkeen eta zenbat minutuko iraupena duten ere adierazi dugu.

#### 1. TAULA: UMOREZKO BAKARRIZKETAN CORPUSA. BARRE LIBREA.

Laburdura	BL1	BL2	BL3	BL4
Lerroak	1-63	64-125	126-181	182-242
Minutuak	7'33''	7'15''	5'45''	6'55''
Guztira	27'28''			

Xehetasun bat aipagarria iruditzen zaigu bakarrizketak gazatu diren baldintza komunikatiboei dagokienez. Atal teorikoan aipatu ditugun bakarrizketen gaineko ikerketek, publiko zabal samar baten aurrean eginiko bakarrizketak dituzte aztergai; gure corpuseko bakarrizketak, oster, telebistako platoan gauzatuak dira, eta bakarrizketa egileak gainontzeko umoristak ditu uneko publiko bakar. Beraz, aurrez, grabatuak dira eta publiko zabalari asterik aste telebistan zein EITB “Nahieran” edo bestelako euskarri digitaletan eskaintzen zaizkio.

Eta bestetik, bat-bateko bertsoei dagokionez *Bapatean 2021* liburua aukeratu dugu. Bertsozale Elkarateak urtero argitaratzen duen liburua da, urteko hainbat plazatako bertsoak batzen dituen. Bat-batean kantatzen diren bertsoen erakusgarri fidela dela esan daiteke, izan ere, antologia osatzen duten plazak askotarikoak dira: txikiak eta handiak, sariketak eta jaialdiak... eta bertso guztiak dira inprobisatuak, txapelketetako pare bat agur salbu, zeinak gure laginetik kanpo utziko ditugun.

Urte osoko bertsoaldiak batzen dituen antologia izaki, Gradu Amaierako Lanean aztertzeko, lagina finkatu nahian zenbati irizpide ezarri genituen: Jaialdi formatuko bertsoaldiak dira aztertu ditugun guztiak. Horrelako saioetan, bertsolari talde bat gai jartzaile baten esanetara aritzen da; ez dira saio erabat formalak, baina ezta bertso-otorduak izan daitezkeen bezain etxeakoak edo informalak ere, sakonetik eta umoretik bietatik izan ohi dute jaialdiek. Modu berean, denbora luzez profesionalki diharduten bertsolarien bertsoaldiak jasotzeari lehentasuna eman diogu corpusa mugatze aldea. Berriz, bakarka eginiko bertsoei edo ofiziotan eginikoei, biei, berdin erreparatu diegu.

Hurrengo taulan laburbiltzen da osatu dugun lagina. Laburdura bakoitzak bertsoaldia ze herritan kantatu zen adierazten digu, herri bakoitzetik bertsoaldi bat baino gehiago jaso dugun kasuan zenbakiz adierazi dugularik (TOL1, TOL2). Halaber, bertsoaldia bakarka ala binaka egin zen eta ze neurritan abestu zen ere adierazi dugu. Azkenengo bi zutabeetan bertsoaldi bakoitzean eta lagin osoan zenbat bertso dauzkagun aztergai adierazi da; orotara sei bertsoalditako 39 bertso aztertu dira.

## 2. TAULA: BAT-BATEKO BERTSOEN CORPUSA. BAPATEAN 2021.

Laburdura	Bakarka/Binaka	Neurria	Kopurua	Guztira
TOL1	Binaka	8ko txikia	10	39
TOL2	Bakarka	6 puntuko handia	3	
BIL	Binaka	8ko txikia	7	
PAS	Binaka	8ko handia	8	
AMA	Bakarka	6 puntuko handia	3	
ZAL	Binaka	8ko txikia	8	

### 3.3 Azterketa metodologia

Aztergai ditugun genero bietan aurkitutako errepikapenak sailkapen berera makurtu ditugu, erkagarri egin nahian. Jakina, horretarako batarentzat zein bestearentzat baliagarri izango den sailkapena diseinatu beharrean ikusi dugu geure burua, atal teorikoan argitu dugun moduan, sailkapen arras desberdinak erabiltzen baitira ikerlariaren eta aztergaiaren arabera. Hori aitorturik, hona hemen gure corpuseko errepikapenak aztertzeko erabili dugun zazpi multzoko sailkapena:

Lehenengo lau errepikapen motak García Azkoaga eta Diaz de Gereñuren (argit.) lanetik jaso ditugu:

1. **Errepikapen identikoa:** Jatorrizkoa hitzez-hitz berdin errepikatzen denean.
2. **Aldaketarik ez dakarten sinonimoak:** Sarri, hitz desberdin bi esanahi erabat berdinarekin edo antzekoarekin errepikatzen dira. Adierazlea errepikatzen ez den arren adierazia errepikatzen dela esan daiteke horrelakoetan eta multzo honetan sartuko ditugu.
3. **Errepikapen hedatua:** Jatorrizkoari elementuren bat gehitzen zaio errepikapen mota honetan.

4. **Errepikapen partziala:** Jatorrizkoari elementuren bat kendu edo aldatzen zaio errepikapen mota honetan.

Baina corpusean agertzen diren bestelako errepikapen motak aztertzeko beste hiru kategoria hauek gehitu dizkiogu sailkapenari:

5. **Hitz jokoak:** Hala bertsoak nola bakarrizketak funtzio ludikodun generoak izaki, jolas itxurako errepikapenak erakusten dituzte, aurreko multzoetan ezin sar daitezkeenak. Errepikapen hauek umorearekin estuki loturik egon ohi dira.
6. **Egiturazko errepikapenak:** Errepikapen identikotzat har daitezkeen arren horietatik banandu nahi izan ditugu, harago doazen errepikapen motak baitira. Elementu jakin bat edo batzuk errepikatu bainoago, egitura konkretu bat errepikatzen da horrelakoetan. Literaturan paralelismotzat hartzen den figura, esaterako, multzo honetan kokatuko genuke. Aurrerago sakonduko dugu gehixeago.
7. **Errepikapen lexikalizatua.** Euskararen ezaugarria da adjektibo edo adberbio bera jarraian errepikatuta berau indartzeko baliabidea. Ikuspegi pragmatikotik aparteko esangurarik ez daukaten arren, zazpigarren multzo honetan bildu ditugu horrelakoak, erabileraren erabileraz hitz bakar bat bailiran funtzionatzen duten errepikapenak.

#### 4. AZTERKETAREN EMAITZAK

Jarraian azterketa eginda bildutako emaitzak aurkeztuko ditugu, bi ataletan berezita: batetik, *Barre Librea* programako umorezko bakarrizketei dagozkienak eta bestetik *Bapatean 2021* liburuko bat-bateko bertsoei dagozkienak. Arestian aurkeztu dugun sailkapenaren arabera batean eta bestean ze errepikapen mota identifikatu ditugun aurkeztuko dugu, datuak zenbakitan eman eta adibideekin osatuz.

##### 4.1 Umorezko bakarrizketak.

Hona hemen taula bat bakarrizketako bakoitzean ze errepikapen mota identifikatu diren argitzen duena:

#### 3. TAULA: ERREPIKAPEN MOTAK UMOREZKO BAKARRIZKETETAN.

	<b>Identikoa</b>	<b>Sinonim.</b>	<b>Hedapena</b>	<b>Partz.</b>	<b>Lexik.</b>	<b>Egitura</b>	<b>Jokoa</b>
<b>BL1</b>	30	8	4	7	2		
<b>BL2</b>	24	7	7	16	1		2

<b>BL3</b>	29	4	1	13	1	1	
<b>BL4</b>	51	4	4	12	1		
<b>Guztira</b>	134 (%59)	23 (%10)	16 (%7)	48 (%21)	5 (%2)	1 (%>1)	2 (%>1)

Errepikapen mota bakoitzetik zenbati adibide ekarri ditugu, mota bakoiza ondo argitze aldera eta amaieran iruzkinduko ditugu emaitzok. Errepikapentzat jo diren atalak beltzez nabarmendu dira eta “/” zeinua isiluna labur gisa irakurri behar da bakarrizketatik jasotako testu-segmentu hauetan.

- Errepikapen identikoak:
  - (1) **osaba Joxemari** / klasiko bat da / bera da klasikoa alegia / eta familia askotan egoten da **osaba Joxemari** / ja jubilatuta e jubilatuta dago e **osaba Joxemari** (BL2: 89-90)
  - (2) bidexka batetik aurrera noala **martxa nordikoa egiten** / hor ya jabetu nintzen **amets batean** nengoela ze **amets batean** soilik ikusiko nauzue **martxa nordikoa egiten** (BL1: 35-36)
  - (3) nigana gerturatu eta esaten dit / **kaixo Antton** / bueno **kaixo Antton** (BL1: 51-52)
  - (4) **agudo** maitia **agudo** (BL3: 140)
  - (5) euskaltegian **kar-kar-kar** esaten da beira **kar-kar-kar** esan aurretio (BL3: 172)
  - (6) **Aholku txiki bat aholku txiki bat** euskaldun zahar guztintzako (BL: 180)
  - (7) **hurrena zer da? gainea eroitzea** / **hurrena zer da? Mikrondasen barrura eroitzea** / ta igual nahiago det **gainea eroitzea** / porque **mikrondasen barrura eroitzen** bazaizu (BL4: 205-207)
  - (8) esnez bete goraino ta bota **ColaCaoa** ta ez naiz publizidadia eitten ai **ColaCaoa ColaCaoa** / ez neskuik ta holako txerrikerik ez/ ni ez naiz fidatzen hola esnetan errez disolbatzen dien gauzekin ez **ColaCaoa** (BL4: 193-195)
- Aldaketa kontzeptualik ez dakarten sinonimoak:
  - (9) oso oso familia **oparoa** da gurea oso **jendetsua** (BL2: 84 )

- (10) **kafea hoztuta neuken** kontutan ari ginen ta **kafea ba epeldu ein ziten / hotza** (BL3: 153-154)
- (11) azkenaldian **asko** ikasi du / **ikaragarri** ta lehengoan galdezka (BL3: 178)
- (12) **azkar** jun beharra daukezu **garaiz** joan beharra daukezu etxera (BL4: 190-191)
- (13) galleta ez da bapaten **eroitzen** galletak bazilatu eitten zaittu / pixkanaka pixkanaka **prezipititzen** joaten da (BL4: 220-221)
- Errepikapen hedatuak:
- (14) **Ez da horrela ez da horrela zehazki** ondo ari zarete e (BL1: 2)
- (15) kontatu nahi dizuet aste honetan izan dudan **amets bat /amets oso berezi bat** (BL1: 5)
- (16) e **gehiago / kide gehiago** e daukat osaba bat (BL2: 102)
- (17) iritsi salako **mahaira kristalezko mahaian** jarri ta (BL4: 212)
- (18) Antton gizakiaren ezaugarri nagusia? / **inteligentzia** zalantzarik gabe (publikoak) / **inteligentzia eza** (BL4: 201-202)
- Errepikapen partzialak:
- (19) **ikusten dut / El Hormiguero / bueno // ikusten dut zati bat /** ta bestea (BL1:20)
- (20) entzun arretaz **zaindu zure familia ofiziala // baina zaindu gainontzeko familiak** ere ze kontuz nik deskribatu (BL2: 117-118)
- (21) **zuk nahi duzun desioa** egi bihurtuko dut / **zuk nahi duzuna** (BL1: 43)
- (22) **zeinek ostias garbitzen du? / ezinezkoa da mikroondas bat ondo garbitzea** (BL4: 207-208)
- Errepikapen lexikalizatuak:
- (23) hankak luzatuta / **lasai-lasai** / nire momentua da e (BL1: 18)
- (24) denak **goxo-goxo** urtean behin bada ere ezta? (BL2: 75-76)
- (25) zu zara belarribizi ta ahoprest belarriak **bizi-bizi** daukazu nire akats guztiak entzuteko (BL3: 150)

(26) **pixkanaka-pixkanaka** prezipitatzen joaten da **pixkanaka-pixkanaka** baina zuk ezin dezu ezer ein (BL4:220-221)

- Egiturazko errepikapenak:

(27) ta horrek zer esan nahi du ba nik e **lehen baino gehio maite detela /lehen baino gehio gustatzen zaidala / lehen baino erakargarriagoa egiten zaidala?** (BL2: 129-131)

- Hitz jokoak:

(28) ja jubilatuta e jubilatuta dago e **osaba joxe mari** (...) horregatik guk deitzen diogu **joxe-mar y montaña** (...) horregatik orduan deitzen zioten **jose-michael jackson** (BL2: 92/94-95)

229 errepikapen identifikatu ditugu guztira gure lagineko umorezko bakarrizketetan. Ordu erdi eskaseko lagina dela kontuan harturik ere, esan genezake, errepikapenak genero honetan bere lekua baduela. Aurkitu ditugunetatik erdiak baino gehiago errepikapen identikoak dira, hots, hitzez hitz errepikatzen da aurrez esanikoa. Eman ditugun adibideek argi erakusten dute, umorezko bakarrizketek dauzkaten helburuen menera daudela errepikapenok, baina diskurtsiboki baliabide ezberdinez hornitzen direla: bakarrizketei heltzeko gai bat hartzen da maiz, eta hari lotutako azpi-gaiak garatzen dira gag-a eragitera bidean (5. adibidea), beste batzuetan intonazioa eta ironiaren erabilera nabarmenagoa delarik (4. Adibidea). Adibideek erakusten dute gag-a batzuetan erreferentzia gisa hartzen den gai baten bilakaeraren progresioan datzala (2 eta 7 adibideak, esaterako); eta bestetan, ironiaren bidea hartzen duten errepikapenetan (8. adibidea). Horri gehitzeko, azpimarratu daiteke errepikapenak 2 . adibidean aurrerago datorren gag-aren aurre-prestakuntzan parte hartzen du, zeina 28. adibidean bildu dugun hitz-jokoarekin gauzatzen den. Bildu dugun errepikapenezko hitz-joko bakarra izanagatik argi gag-a eragitea dela bere funtzioa. Azkenik, egia da beste errepikapen identiko batzuek funtzio testualagoekin dutela lotura handiagoa, topikoa markatu edo mintzagaia berrartzen dute zenbaitetan topikoa mantentzeko, 6. errepikapena horren adibide.

Errepikapen partzialena da bigarren multzo handiena. Jatorrizko elementua aldaketaren batekin errepikatzen da bost errepikapenetik behin. Errepikapen hedatuak eta

aldaketa kontzeptualik ez dakarten sinonimoek ere badute euren lekutxoak. Esan dezakegu errepikapen identikoaren arrazoi antzekoei erantzuten diela beste errepikapen hauek ere. Batetik, testuaren barne kohesioa bideratzen dute, baina zerikusi handia dute gag-a sortzen duten diskutsoko uneekin.

Errepikapen lexikalizatuen kasuan, guztietan dago adibideren bat. Errepikapen mota hauek indartzeak dira modalizazioaren aldetik; euskararen baliabide arrunt gisa erabiliak dira, baina 23. adibidean ikusten den bezala, bakarriketako errelatoaren une baten deskribapena markatu dezakete.

Azkenik, egiturazko errepikapenen saila bakarriketak aztertzeke antzu samarra gertatu zaigula aitortu daiteke.

#### 4.2 Bat-bateko bertsoak

##### 4. TAULA: ERREPIKAPEN MOTAK BAT-BATEKO BERTSOETAN

	<b>Identikoa</b>	<b>Sinonimoa</b>	<b>Hedapena</b>	<b>Partziala</b>	<b>Lexik.</b>	<b>Egitura</b>	<b>Jokoa</b>
<b>TOL1</b>	9	7	1	2	1	1	1
<b>TOL2</b>	2	7		5	1		
<b>BIL</b>	7	2		1			1
<b>PAS</b>	9	6		6	1	1	
<b>AMA</b>	11	4		2		1	
<b>ZAL</b>	15	1	1	4	1		
<b>Guztira</b>	53 (%48)	27 (%24)	2 (%2)	20 (%18)	4 (%4)	3 (%·3)	2 (%2)

Bakarriketekin egin bezala, bertsoen kasuan ere, errepikapen mota bakoitzetik hainbat adibide ekarri nahi izan ditugu, mota bakoitza zelan gauzatzen den erakusteko eta ondoren iruzkinduko ditugu. Bertso lerroak “/” zeinuarekin markatuko dira eta errepikapenen arteko atal luzeagoak “(…)” zeinuarekin ekarriko:

- Errepikapen identikoak:
  - (29) Orain **Urkullu** deitzen didate ta tira! / **Urkullun** animoa / **Urkullun** ditzira / **Urkulluren** grazia / al daukat guztira (TOL1: 326-330)
  - (30) **arkitekturak** mugatzen ditu (...) **arkitektura** ez baita soilik (TOL2: 342 / 349)
  - (31) Zu **pozik** eta ni ere **pozik** (PAS: 476)



- (32) Baina **isiltasun** hori sartzean (...) deserosoa da **isiltasuna** / eragiten du dardara (...) **isiltasuna** ona da soilik / hautatua baldin bada (AMA: 526 / 530-531 / 536-537)
- Aldaketa kontzeptualik ez dakarten sinonimoak:
    - (33) Ahaztu **antsietatea / beldurra, estresa** (TOL1: 249-250)
    - (34) Berriz egon nahi nuke / biak buruz buru / **gin-tonic ta kubata / zigarro ta puru** (TOL1: 317-320)
    - (35) arkitekturak mugatzen ditu / **mugimenduak, ekintzak** / bidean zehar agertuz gero /**oztopoak ta baldintzak** (TOL2: 342-343)
    - (36) **Konfinamendu** garai horretan (...) **pandemian** maskarilla kendu (PAS: 480 / 498)
    - (37) Pandemian **maskarilla** kendu (...) Ta erretzeko ezin leikenez / **musukoa** hor mantendu (PAS: 498 / 505-506)
  - Errepikapen hedatuak:
    - (38) Hauxe da zoritxarra / **etxe ta etxe-ate** (TOL1: 290-291)
  - Errepikapen partzialak:
    - (39) espazio orok beharko luke / denontzat **irisgarria**. (bis) // Gu **iristeko** eraiki dira / horrenbeste bidezidor (TOL2: 360 / 362)
    - (40) **bizi zati bat kentzen duela** / dago onartu beharra / **baina azkena kentzen du** beti / beraz ez da horren txarra (PAS: 489-492)
  - Errepikapen lexikalizatuak:
    - (41) adiorik ez sustrai / **ondo-ondo** pasa (TOL1: 312-313)
    - (42) belodromoan ni **gazte-gazte** (PAS: 451)
  - Egiturazko errepikapenak:
    - (43) **Lehenago** taza zena / **orain** da kikara / **lehenago** zena poza / **orain** hotzikara
    - (44) **ahots gabeko horien hitzak** / oraindik indarra baitu (...) **esan ezin den horren uhinak** / gogorren kolpatzen gaitu.
  - Hitz jokoak:

(45) Lehen **mozorro** ta aurten / **zomorro** bat zera (TOL1: 269-270)

Azterturiko 39 bertsoetan 111 errepikapen zenbatu ditugu; hortaz, ez dago zalantzarik, bat-bateko bertsoen testu-generoan ere badu bere lekua errepikapenak. Bertsoen kasuan ere errepikapen identikoak dira nagusi, nagusitasun txikiagoz bada ere: ia erdiak dira errepikapen identikoak. Batetik, umorezko bakarrizketetan ikusi dugun moduan, gag-a eragiteko momentuan ikus ditzakegu errepikapen identiko horietako batzuk, 29. adibidea kasu. Dena den, beste askok zuzenean funtzio testualagoei erantzuten die eta kohesioa mantentzearekin dute lotura, horren adibide 30. eta 32.a. Halaber, binaka egindako bertsoaldien kasuan badira modalitatearen izaera interlokuziozkoari erantzuten dieten adibideak ere. Azkenik, aipatu beharra dago, bertsoaren ezaugarri formalek, hau da, errespetatu beharreko metrika konkretuak eragiten dituela garbiri errepikapenetako asko, 31. adibidea bezala, beste asko.

Azken arrazoi horrek eraginda, aldaketa kontzeptualik eragiten ez duten sinonimoen kopuruak nabarmen egiten du gora umorezko bakarrizketen aldean. Argi dago, esan nahi dena bertsoaren neurri estura makurtu beharrak aberastasun lexiko handia galdegiten duela, izan ere, lehenago lau silabarekin esandako hura gero hiru silabatan errepikatuta behartuta zaude; edo pare bat silaba hutsik gelditu dakizkizuke, zerbait esateko faltan. Baldintza horiei erantzuteko ta aberastasun lexikoaren adibide dira 34., 35., 36., 37., eta 38. errepikapenak.

Hitz jokoan bidezko errepikapenen adibide bi aurkitu ditugu, bertsoaren izaera ludikoari lotuak biak. Pentsatzekoa da corpus handiagoa aztertzeke aukera bageneuka horrelako gehiago aurkituko genituzkeela, gutxi izan arren erabat erantzuten baitute berbazo praktika honen izaera estetikoari, berbekin olgetan aritu nahi horri.

Errepikapen hedatuen kategoria ez zaigu bereziki funtzionala egin bat-bateko bertsoen kasuan. Izan daiteke, zenbaitetan, aldaketa partzialetatik bereizteko izan ditugun zailtasunek eragin izana. Azken hauek ugari aurkitu ditugu eta aipatzen ari garen funtzio askotarikoekin izan dezakete lotura.

Azkenik, egiturazko errepikapenen taldeari azpimarragarri irizten diogu. Berriz, bertsoaren metrika zurrinak egitura bertsuak behin eta berriro sortzera eraman baitezake bertsolaria, izan modu inkontzientean gura barik, zein modu kontzientean edertasun estetiko bila.

## 5. ONDORIOAK

Sarreran agindu dugun moduan, errepikapenaren balio, agerpen eta motak aztertu ditugu lan honetan, ikuspegi horretatik aztertu gabe zeuden bi testu-genero oinarri hartuz: Umorezko bakarrizketak eta bat-bateko bertsoak. Bataren eta bestearen errepikapenak identifikatu, sailkatu eta aztertu ditugu, eta bien arten alderik ba ote den begiratu da.

Zazpi errepikapen motako sailkapena diseinatu dugu gure lagina aztertu ahal izateko eta sailkapen horren arabera aztertu ditugu aurkitutako errepikapen guztiak. Umorezko bakarrizketetan eta bat-bateko bertsoetan errepikapena ugari agertzen dela ikusi dugu, eta inolaz ezingo litzatekeela baztergarriztat jo. Halaber, errepikapenaren erabilera antzekotasunak ikusi ditugu genero bien artean, baina baita ezberdintasun aipagarriak ere. Bertsoen kasuan errepikapen identikoen nagusitasuna ez dela hainbestekoa ikusi dugu eta aldaketa kontzeptualik ez dakarten sinonimoen erabilera askoz ugariagoa dela bakarrizketetan baino.

Bakarrizketa egileen jarduna nagusiki monologikoa den arren, eta bertsolariena halakoa izan zein ez (hots, bakarka aritu edo bertsolari gehiagorekin batera), jendaurrean dihardute denek eta publikoarekin elkarreraginean eta helburu estetikoarekin gauzatzen da mintza-jarduna. Genero bien izaera interaktibo eta ludikoa nabaria da, baina genero baten edo bestearen ezaugarri komunikatibo, testual eta diskurtsiboek halabeharrez errepikapenaren erabilera jakin bat eragiten dutela esan daiteke. Funtzio testualagoekin loturiko errepikapenak identifikatu ditugu bi generotan, izen-kohesioan paper garrantzitsua daukatenak, gag-aren aurre-prestakuntza sekuentzia gisako bat sortzen dutenak. Halaber, bereziki binakako bertsoen kasuan, solaskidetzari dagozkion errepikapenak ere topatu ditugu. Solaskidetzari baliatzen da bi generoetan, baina oso bestelakoa da gauzapena. Azkenik, ezin da aipatu barik utzi, bertsoaren egitura formalak ere, hots, metrikak ere baldintzatu duela errepikapenaren agerpena.

Lan honek aukera eman digu mintza-jardun biren errepikapenaren erabilera aztertzeke eta errepikapenak testu-generoarekin izan dezakeen lotura arakatzeko. Edonola ere, errepikapenari eragiten dioten eragileak askotarikoak izan daitezkeela use dugu: generoa bai, baina agian gaiak, autorearen egiteko moduek, edo azpi-generoek eta bestelakoek ere izango dute zeresana, kontuan hartzen badugu, batez ere, genero ludiko-estetikoen aurrean gaudela.

## 6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Alegria, A. (2009): “Errepikapen lexikoak ahozko modalitatearen koherentzia sintaktikoaren ikuspegitik aztergai”, *Euskera*, 54, 2-1, 2009, Bilbo, 771-809.

Camacho, M.M. (2009): *Análisis del discurso y repetición: palabras, actitudes y sentimientos*. Madrid: Arco Libros.

Diaz de Gereñu, L. Idiazabal, I. & Larringan, L.-M. (2020) Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren didaktikan, *FLV*, 50 urte: metodo eta joera berriak (euskal) hizkuntzalaritzan. ISBN 978-84-235-3561-3, 195-208 or.

Diaz-de-Gereñu & Garcia-Azkoaga (argitaratzeko): “L’art du conte : la répétition de la dénomination du personnage dans la construction textuelle”, Sandrine BEDOURET (ed.) *Lexique et frontières de genres*, UPPA.

Etxebarria, I. eta Kaltzakorta, J. (2009): *Herri literatura*. Vitoria-Gasteiz: Labayru ikastegia.

Garcés, M.P. (2004): “La repetición: formas y funciones en el discurso oral”, *Archivo de Filología aragonesa*, 59-60, 1, 2004, 437-456.

Garcia-Azkoaga, I.M. eta Diaz de Gereñu, L. (2009): “Ahozko narratibotasuna interakzionismoaren argitara: kohesio mekanismoek esaten digutena”, *Euskera*, 54, 2-1, 2009, Bilbo, 723-770.

Gutierrez, E. (2019): “Errepikapenaren azterketa kazetaritzako ahozko bi testu generotan”, *Euskal Ikasketak Graduko GrALa*. Vitoria-Gasteiz: UPV-EHU.

Larrazabal, E. eta Larringan, L.M. (2007): “Irrati-elkarrizketa: ahozko genero formal baten deskribapena” in Idiazabal, I. eta Garcia I.M. (ed.), *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*, Euskara errektoreordetzaren sare argitalpena, 66-85.

Larringan, L.M. eta Idiazabal, I. (2008): “Ahozko hizkuntzari antza hartzeko hiru gogoeta”, *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarra*, Iker 19, Bilbo: Euskaltzaindia, 29-38.

Larringan, L.M. eta Ozaeta, A. (2012): “Ahozkoa eta idatzia, bi kultura. Zertan elkarren oztopo, zertan elkarren aberasbide” in *Mintzola ahozko lantegia, Ahoa Bete Hots*, 11-31.

Linares, E. (2018): “La atenuación como estrategia pragmática en el monólogo humorístico subversivo”, *Normas*, 8.

Linares, E. (2020): “El estilo de habla en el discurso directo como estrategia para la construcción del género en el monólogo humorístico”, *Revista Signos*, 53.102.

Ruiz Gurillo, L. (2012): *La lingüística del humor en español*. Madrid: Arco Libros.

Ruiz Gurillo, L. (2013): “El monólogo humorístico como tipo de discurso. El dinamismo de los rasgos primarios”, *Cuadernos Aispi*, (2), 195-218.

Zumthor, P (1983): *Introduction à la poésie orale*, Paris: Seuil.

## 7. ERANSKINAK

### ERANSKINAK 1: CORPUSA.

Eranskin honetan azterketa egiteko erabili dugun corpusa jasotzen da. Aurrenik (1-242 lerroen artean) *Barre Librea* programatik jaso eta transkribatutako umorezko bakarrizketak:

#### 1. TAULA: UMOREZKO BAKARRIZKETAN CORPUSA. BARRE LIBREA.

Laburdura	BL1	BL2	BL3	BL4
Lerroak	1-63	64-125	126-181	182-242
Minutuak	7'33''	7'15''	5'45''	6'55''
Guztira	27'28''			

Eta jarraian (243-623 lerroen artean) *Bapatean 2021* liburutik jasotakobateko bertsoak:

#### 2. TAULA: BAT-BATEKO BERTSOEN CORPUSA. BAPATEAN 2021.

Laburdura	Bakarka/Binaka	Neurria	Kopurua	Guztira
TOL1	Binaka	8ko txikia	10	39
TOL2	Bakarka	6 puntuko handia	3	
BIL	Binaka	8ko txikia	7	
PAS	Binaka	8ko handia	8	
AMA	Bakarka	6 puntuko handia	3	
ZAL	Binaka	8ko txikia	8	

1 **BL1: Antton Telleria: Andoni Ortuzar eta Maddalen Iriarterekin ametsa**

2 Bueno // ez da horrela ez da horrela zehazki ondo ari zarete e // bueno kaixo // ondo  
3 ondo zaudete? / (erantzunak: bai hoixe oso ondo) ok // bueno ez zait gehiegi gustatzen  
4 niri buruz hitz egitea // baina gaia atera duzue / e: / kontatu nahi dizuet aste honetan  
5 izan dudan amets bat /amets oso berezi bat // astelehen gauean gertatu zen / bueno  
6 astelehen gauean e:: astelehen gauean asteartera bitarteko / ezagutzen duzue astegunen  
7 mekanika ezta? gutxi-gorabehera / ados // gau delikatua izaten da niretzat e  
8 astelehenetik asteartera bitarteko hori / ze astelehenak ez zaizkit batere gustatzen / eta  
9 astearreak gutxiago / orduan e: / nolabait pasatzen naiz egun txar batetik egun txarrago  
10 batera / gazteleraz esaten den moduan de guatemala a guatepeor / edo euskaraz ermutik  
11 eibarrera (barreak) // txiste hau egiterakoan asko gustatzen zait jendea hasten dela  
12 ordena eztabaidatzen ermutik eibarrera ala eibarretik ermura / baina inork ez du  
13 zalantzan jartzen biak txarrak direnik /// astelehen gauean beraz e / (barreak)  
14 (Garmendia: eske lagunek eitten orain ere) besar besarkada bat besarkada bat (Plazaola:  
15 besarkada bat oraintxe ari zaizkizu twitterren ue:::) / astelehen gauean beraz / e: ohera  
16 joan nintzen betiko moduan ze / bueno hor badauzkat ohera sartu aurretik nire  
17 /errutinaxo batzuk edo / gauero hamarrak aldera / sofan esertzen naiz / hankak luzatuta  
18 / lasai lasai / nire momentua da e / pentsatzen dut jode ze lasai umerik gabe / eta ez  
19 daukat umerik e / baina gustatzen zait aita ez izate horretaz ere disfrutatzea nolabait //  
20 gero telebista ikusten dut / El Hormiguero / bueno // ikusten dut zati bat / ta bestea  
21 grabatuta uzten dut / ze gustatzen zait / sufrimendua dosifikatzea / eta gero ya e:: /  
22 komunera joaten naiz ze / hau bai bereziki gogoko dut / ohera sartu aurretik / arropa  
23 guztiak erantzi eta nire gorputz osoa bodymilk mordo batekin igurztea / Maite ditut  
24 maite nire bazterrak abesten dudan bitartean // gorputz osoa e zirrikitu guztiak e gehiago  
25 da letra ere moldatu dut maite ditut / maite nire bazterrak ileak ezkututzen dizkidanean //  
26 gainera bodymilka ematerakoan makurtzen naiz eta adineko jenteak egiten duen  
27 moduan zaratatxoak eta ateratzen ditut / ag ag ah / bueno astelehenean ere egin nuen  
28 hori guztia horra arte dena normal / abentura hasi zen nolabait e oheratu eta morfeok  
29 bere sareetan harrapatu ninduenean / alegia lokartu nintzenean / baina bueno dotoreago  
30 esanda / badakizue morfeo dela ametsen jainkoa ta hori guztia (Plazaola: a uste nuen  
31 beste gizon batekin bizi zinela) izan zitekeen baina politagoa da / jo hurrengoan lanera  
32 berandu iristen zaretenean / ez esan eske lo hartu dut / esan barkatu baina morfeok bere  
33 sareetan harrapatu nau probatu ta esango didazue // bueno ametsa/ ametsa/ inportantea  
34 entzun arretaz e // han agertzen naiz ni / baso ilun batean / bidexka batetik aurrera noala  
35 martxa nordikoa egiten / hor ya jabetu nintzen amets batean nengoela ze amets batean  
36 soilik ikusiko nauzue martxa nordikoa egiten / printzipio batzuk ditut // hantxe noa /  
37 bidean aurrera / azkar ze dakizuen moduan martxa nordikoan sekulako abiadura hartzen  
38 da // eta bapatean / sasi artean entzuten dut zerbait mugitzen ari dela // e martxa eteten  
39 dut / frenatuz noski / gerturatzen naiz ta berriz ere sasi artean entzuten dut halako  
40 astindu moduko bat edo / beldurtuta begira hasi eta hantxe topatzen dut / Andoni  
41 Ortuzar // irribarretsu niri begira /// ni shockeatuta (keinuak) /// galdetzen diot zer egiten  
42 duzu hor andoni / eta erantzuten dit / kopeta igurzten badidazu / zuk nahi duzun desioa  
43 egi bihurtuko dut / zuk nahi duzuna pixka bat pentsatu ta aurrera egitea erabakitzen dut  
44 e:: kopeta igurzten diot (keinuak, barreak) // eta zai geratzen naiz ba bueno geinu bat  
45 edo noiz agertuko ezta? / ezta geinurik agertzen esaten diot andoni eta geinua ze geinu?  
46 / Jode ezta esan didazu kopeta igurzteko pentsatzen dut / ez ez kopeta igurzteko

47 eskatu dizut gura nuelako / baina geinua ni naiz eskatu niri nahi duzuna / eta eta  
48 betearaziko dut / orduan ametsaren barruan hasten naiz zer eskatu ezta? e: bukatu dadila  
49 munduan gosea edo / biolentzia edo martxa nordikoa e / ta azkenean ez dakit zergatik  
50 esaten diot / hegan egin nahi dut // momentu horretan Andoni sasi artean gordetzen da /  
51 eta han agertzen da Maddalen Iriarte // nigana gerturatu eta esaten dit / kaixo Antton /  
52 bueno Kaixo Antton / esan didate hegan egin nahi duzula bada igo nire flekillora / eta  
53 goazen / igotzen naiz eta han / Maddalenen flekillo gainean igota / hegan infinitoan  
54 desagertzen naiz // hori da nire ametsa / zergatik kontatu dizuet hau // ez galdera bat da  
55 benetan e zergatik kontatu dizuet hau / jode momentuan ni ere tio kezkatu nintzen / ze  
56 ze ostia amestu dut ezta / ze gero gainera hor dago ametsen interpretazioaren mundu  
57 hori ere ezta? hau amestu baduzu horrelakoa zara e / ez dakit amets horren arabera ni  
58 nolakoa naizen / uste dut nahiago dudala ez jakin // onena da / ondorioak eta ateratzen  
59 hasi beharrean ametsak e ingurukoei kontatzea / ahal bezain pronto / ahal dela ametsa  
60 izan eta berehala / hortan egia da bentaja bat dugula bikotekidearekin lo egiten dugunok  
61 / astelehenean / bueno ametsa izandakoan esnatu nintzen / eta esnatu nuen bera ere  
62 ukalondoarekin / ai antton zer / esan zidan goxo goxo gerturatu ta esan nion / jo ez duzu  
63 sinetsiko / baina / zurekin amets egin dut / Andoni

#### 64 **BL2: Antton Telleria: Familiari buruz.**

65 Eskerrik asko / nik egiten dut / pentsatu oso fuerte / eta hitz egin ja gero bueno /  
66 esfortzuak ondo-ondo txandakatuta ezta? // Bi mila eta hogeita bat lagunok // ez dakit  
67 zuei gertatu zaizuen niri e / pixkat e / tupustean harrapatu nau urteak / tupustean /  
68 holako <shock,show> moduko bat izan da ezta broma ez egin barrerik // eta oraintxe / e  
69 zuek entzuten ari nintzen bitartean / entzun zaituztet eta / gozatu dut / zorionak denoi / e  
70 ari naiz / edo aritu naiz pentsatzen / eta pixka bat e / joan berri diren pasa berri diren / e  
71 gabonen balantzea eta egiten / oro har ondo pasa dut / disfrutatu dut / baina // faltan bota  
72 dut e elementu bat beste urtetan ezinbestekoa izan dena / mmm / familian / egiten ziren /  
73 bazkari afari jendetsu horiek guztiak ezta? / Ze aurten / kopurua pixka bat e / mugatu  
74 digute nolabait eta / ondorioz aurtengo gabonetan galdu dugu klasiko bat / klasiko handi  
75 bat // denak elkartzea ezta? / Aiton amonak osaba izebak lehengusuak / denak goxo  
76 goxo urtean behin bada ere ezta? sutondoan dagoen amonarengana gerturatu eta esatea  
77 kaixo zure izena? // e jode / berari ere batzutan ahazten zaio nire izena // Antton eske  
78 amonak dementzia dauka ja bueno ta nik monologoak prestatu behar ditut eta //  
79 bakoitzak dauzka hemen bere mobidak // gainontzean / muxu bat amona / gabonak ondo  
80 ondo ospatu ditugu / faltan bota dugu hori eta / pixka bat nostalgiko nagoenez oraindik  
81 ere urte berria hasi dugun honetan // erabaki dut nire familiari / ya ke elkarrekin egoterik  
82 eta izan ez dugunez / omenaldi txiki bat egitea nola? / Ba hemen euskal herri osoaren  
83 aurrean / nire familia nolakoa den azalduz o: o: (barreak) / hori bai / o oso oso familia  
84 oparoa da gurea oso jendetsua / kontzertu batera joaten garenero sold out egiten dugu //  
85 ikusi zenuten berri txarrakek e hor navarra arenan egin zuen kontzertu hori? / hori zen  
86 amaren e zatia amaren zatia // aitaren zatiari gustatzen zaio musika gogorxeagoa eta ez  
87 ziren ez ziren joan // imajinatzen dut Gorka Urbizu negarrez etxean jode / banekien nik  
88 distortzio gehiago jode / lasai Gorka besarkada bat zuri ere // e familia ugaria da esan  
89 bezela / kide asko gara hoi artean / adibidez osaba joxemari / klasiko bat da / bera da  
90 klasikoa alegia / eta familia askotan egoten da osaba joxemari / ja jubilatuta e jubilatuta  
91 dago e osaba joxe mari urte erdia pasatzen du benidormen / eta beste erdia pirineotan //  
92 horregatik guk deitzen diogu joxe-mar y montaña (barreak, asko) // jubil jubilatuta dago

93 orain hori bai e ja / nahikoa parranda egina delako e / kontatzen digute lehen gaztetan  
 94 eta dantzan aritzen zela eta abar eta / horregatik orduan deitzen zioten josemichael  
 95 jackson // beste izeba bat ere badaukat e izeba monja / hau ere klasiko bat ez da broma  
 96 hori bai aurren e gabonetan ez du etortzerik izan ze konfinatuta dago 1965etik (barreak)  
 97 // hori bai gauero ikusten du etb 1 e / alegia mirariak egiten ditu / izeba monja ze  
 98 gehiago? E osaba bat daukat / ezta egiten duena / Osaba Miel / ezta broma asko askotan  
 99 gertatzen da joder bokazioak eta izenak / bat egitea ezta? / Ez da ez da beti gertatzen  
 100 esaterako badut lehengusu bat Amets izena duena / eta ez du batera ondo lo egiten //  
 101 badakizue / Speed-a ta hori // eramaten zituen horrelako pegatinak eta tarteka / e  
 102 gehiago kide gehiago e daukat osaba bat e homosexuala dena / nire osaba homosexuala  
 103 da bueno hau esaten dutan. e esaten dudanean lagunek eta esaten didate nola nire osaba  
 104 homosexuala? / Izango da zure osaba / eta gainera homosexuala da baina ez du horrek  
 105 definitzen nolabait ezta? Eztatik zergatik tematzen naizen hortan esan beharrean  
 106 besterik gabe nire osaba ertzaina dela ta / gero e:: / familia oparoa ikusten ari zareten  
 107 moduan badauzkagu familia guztietako liskar tipikoak ere zuen familietan ere izango  
 108 dira noski liskarrak nik baditut e: nire lehengusuak diren bi anai bixkiak eta ez diote  
 109 elkarri hitz egiten // egia da bost hilabete dituztela oraindik // akaso garaiz da oraindik  
 110 ondorioak ateratzeko / ikusiko dugu hilabeteek aurrera egin ahala zer gertatzen den //  
 111 eta gero noski familian / daukagu / telebista izar handi bat / eta ni naiz bere anaia //  
 112 kilometro zero / bueno bakoitzak bakoitzak dauka bere estiloa bale jode ez dago ez  
 113 hobeagorik ez okerragorik // e hori bai hori hori da nire familia gehiago ere badaude  
 114 baina utziko ditut beste monogolo baterako / bukatu nahi nuke e gaurko monologoa  
 115 nola? Jabetu naiz barre librean azkenaldian joera handia daukazuela / horrelako mezu  
 116 positiboak eta botatzeko / bihozberak / nik urte berriarekin ere estilo horrekin bat egin  
 117 nahi izan dut / horregatik / lagun ikus entzule 2021ean / entzun arretaz zaindu zure  
 118 familia ofiziala // baina zaindu gainontzeko familiak ere ze kontuz nik deskribatu  
 119 dudana da nire familia ofiziala baina nik beste familia bat ere badaukat // zuek zarete  
 120 ooo // ze ze zuek zarete nire komedia familia nolabait monologoak egiteko asmoa agertu  
 121 nuenean Jon Plazaolak eta Aitziber Garmendiak beso zabalik hartu nindutelako //  
 122 gazteagoa izanagatik ere // askoz gazteagoa izanagatik ere esan zidaten etorri lasai eta  
 123 horregatik askotan esaten dut Jon eta Aitziber niretzako aita eta ama direla // eta Itziar  
 124 izeba monja // beraz / eta hau da mezu sakona zaindu zure familia ofiziala baina baita  
 125 beste familiak ere bereziki / kasu honetan bezela / ordaintzen badizute.

126 **BL3: Aitziber Garmendia: Bikote euskaldun berria.**

127 Nire bikotea euskaldun berrie da / hau oso ondo dao / nik e bueno ezaugutu nunen  
 128 halanola moldatzen zan baina egie esan azken aldi hontan asko ikasi du / bai euskaltegin  
 129 ibili da barnetegi baten e eon da // ta horrek zer esan nahi du ba nik e lehen baino gehio  
 130 maite detela /lehen baino gehio gustatzen zaidala / lehen baino erakargarriagoa egiten  
 131 zaidala? //ba bai (barreak) aber ia beti ia beti mm wasapeko audio mezuak bidaltzen  
 132 dizkidanean izan ezik ostiaaa aber hiru minutu 27 segundu oilaskoa erostea ahaztu  
 133 zaiola esateko / mekauendio aber aguroago / ta karo zer pasatzen da / zu hor zarela zai  
 134 zarela / eske euskaldunei zer gertatzen zaigu euskaldun zaharroi ez? // ahoa betetzen  
 135 zaigu denoi esaten e / ez euskaldun berriak jo zenbat maite ditugun e: // pazientziak  
 136 hartu behar da e // belarriprest /ahobizi / ahoa bate bete einda esaten deu danak eske  
 137 oso ondo gelditzen da bertsoafaitan / euskararen aldeko festatan / baino geo



138 egunerokotasunen zuk hiru minutu dauzkazunen / pisa eiteko / lanea juteko / ta zure  
 139 bikotearen audio whatsapp entzun / eta erantzuteko / mekabendio nerbioso jartzen gea /  
 140 pa aguro maitia agudo hasten zatenen maitia egunon gaur goizago atera naiz e lanetik /  
 141 eta e Belenekin geratu naiz / gero pote bat hartzeko gero deituko dizut ea ea lana garaiz  
 142 bukatzen e duzu e duzulak duzun du zun / la ostia hamar segundu duzun entzuteko zai  
 143 ta duzula duzula / ta bakizu gaixki ai da ta badijo badijo okerreko bidetik baino ez  
 144 duzun / ta segi itten du gainea segi // bestela e deitu lasai eta e eta hitz egingo dugu  
 145 bueno e / bestela falta diren gauzak e erosi e erosketak e ero e e erosi erosi erosiko dut  
 146 nik ditut pluralean ditut // eskerrak wasap audiok diren ze telefonoz aittuko bagine klaro  
 147 hau dana entzun eingo litteke behin esan zian ni ez nintzela be belarriprest ta ahobizi / ni  
 148 nintzela belarribizi ta ahoprest ta nik esan nion nire handiuste horretan ez maitia esaten  
 149 da belarri bizi osea belarriprest ta ahobizi ez ez ondo esan dut / zu zara belarribizi ta  
 150 ahoprest belarriak bizi bizi daukazu nire akats guztiak entzuteko / ta ahoa beti prest /  
 151 errieta eginez zuzentzeko ta esan nun la ostia arrazoia dauke gainera arrazoi / badakizu  
 152 zer aber / behin e nik holakotan hanka asko sartu det eta aukera asko ez dittut  
 153 aprobetxau behin esan ziten / kafea hoztuta neuken kontutan ari ginen ta kafea ba epeldu  
 154 ein ziten hotza / ta esan ziten berotuko zaitut / ta ni lista izan banintz esango nion benga  
 155 bale rraa / mahaia apartau ta zer esan nion / ba euskaldun guztik eitten deuna / zuzendu  
 156 ein nion berotuko dizut esaten da zu tonta zea zu tonta zea berotuko zaitut esaten  
 157 dizuenen esan beahr dezu rra benga / bai (hasperena)// aber bere alde onak e baditu ze  
 158 gauza askotan ba gauza graziosok ateatzen die ba adibidez esaten danen e / izeba  
 159 joseinazio ta osaba karmele datoz ta zuk eitten dezu (barre) / bira ze erreztasunekin  
 160 eitten dun sexu aldaketa euskaldun berri batek / esplikaiozu izeba zer dan / osaba zer  
 161 dan / baino hoi politte da baino gero beste momentu askotan oso zaille da / zuzentzea /  
 162 adibidez / behin momentu serio baten geunden / elkarri begitara begiratu / eta nik  
 163 begitara begira esan nion ni hemen nao nahi dezunerako / ta berak begietara begira  
 164 erantzun zidan eskerrik asko zu zera ogi puzkerra // klaro ez da momentue zuzentzeko  
 165 ez da momentue zuzentzeko parekoa malkoa dariola daukazunen da ze esan behar dezu  
 166 / ogi pusketa esaten da eske puzker bat da ez da on eee egon zaitte isilik // zaila da zaila  
 167 da / baina gero zer pasatzen da berak ni zuzentzen nauenean / hori eztiot eztiot  
 168 admitiitzen / hasten zaitenen super ezin da esan maitia euskaltegian esan digute gaizki  
 169 erabilita daola / edo ez du ez da esaten ez du pena merezi gaizki dago esanda / ez du  
 170 merezi esan behar da / ze bestela erderakada da eta nik e bueno bai baino e bueno  
 171 askotan erabiltzen da / edo wasapean jartzen dezunen jajaja eta esaten du ez  
 172 euskaltegian kar kar kar esaten da beira kar kar kar esan aurretio lau behatz moztuko  
 173 ditut / baino aber / ta segi eitten dizu aber / ni uste dut nola ni uste dut euskaltegi hortan  
 174 ergatiboa ondo erabiltzen noiz ostia erakutsiko dizue / badakizue ze pasatzen dan gu  
 175 denbora guztian ari garela zuzentzen esaten deu pazientzia daukeula baino ez daukeu ta  
 176 gero guk ez dugu onartzen beraiek gu zuzentzen gaituztenen / badakizue zein den  
 177 arazoa? / garbizaletasuna oso onargarria dela baina garbizalekeria ez ta guk hori askotan  
 178 eitten degun akats bat da / azkenaldian asko ikasi du / ikaragarri ta lehengoan galdezka  
 179 etorri zitzaidan e nola da haiek darakuste? / Ta nik e: e: berotuko zaitut? Aholku txiki  
 180 bat aholku txiki bat euskaldun zahar guztintzako ez gaitezen hain belarri bizi ta hain aho  
 181 pres eta gozatu dezagun euskara bere erotismo exotiko guztian / eskerrik asko.

182 **Jon Plazaola: Mikroondasa.**

183 Nire aldarrikapena hauxe da ETBk behar du sukaldaritza programa bat / ze bost o sei  
184 dauzke ta behar du bat bat bakarra e nahikua ta sobran ya / bueno pentsatzen det hemen  
185 danok dakigula mikroondas bat erabiltzen? / bai bai bai bai ostiyak / ez da mundu jaio  
186 emakumeik o gizonik mikroondasa erabiltzen dakienik / eta etxen esaten baozu nik  
187 badakit ba ez gezurra / eztakizue mikroondasakin beti berdina pasatzen da / zuk sartu  
188 platerkada lenteja mikroondasen / jarri minutu bat pi:: / pim /atera brum / ateratzeia  
189 platera kiskaltzen / ta lentejak / hotzak / hotzak hotzak /nik rito bat dauket / ostiral  
190 gauetan adibidez / oin gainea ezin leike inoa atera o behintzet azkar jun beharra daukezu  
191 garaiz joan beharra daukezu etxera / ostiral gauetan nik hartzen det / eta katilukada  
192 kolakau / katilukada ez taza bat ez tazoi bat ez bol bat ez / katilua / e? euskal esne  
193 unidadia katilua katilua / esnez bete goraino ta bota kolakaoa ta ez naiz publizidadia  
194 eitten ai kolakaoa kolakaoa / ez neskuik ta holako txerrikerik ez/ ni ez naiz fidatzen hola  
195 esnetan errez disolbatzen dien gauzeekin ez kolakaoa / bota ta erruz erruz bota zemento  
196 Rezola egin arte kosta dadila e kutxarakin mugitzea ra:: / holaxe ta sartu mikroondasen /  
197 sartu mikroondasen eta emateiot bost minutu max ez naizelako fidatzen / bost?  
198 (publikoak) / Bost minutu max pum / pi:: ta zai zai gelditzen naiz kolakaoa bigilatzen  
199 holaxe pi::: / pim / iriki mikroondasa / Kordoba abuztuak 17 atsaldeko hirurak fue:  
200 / ta mikroondasa altura hontan dauket mikroondasa altura hontan dauket / zein da  
201 Antton gizakiaren ezaugarri nagusia? / inteligentzia zalantzarik gabe (publikoak) /  
202 inteligentzia eza /gizakia tontoa da tontoa da por defecto esateana / bere defecto handia  
203 tontoa izatea da eta hor daukezu bost minutu egon dan katilukada kolakao / eta ze  
204 okurritzen zaizu? / heltzea /heltzea / ta hor mekaben dio / hortxe / eta ya bakizu pixkat  
205 igo dezu katilua eta bakizu kagau dezula / porke ya hortikan hurrena zer da? gainea  
206 eroitzea / hurrena zer da? mikrondasen barrura eroitzea / ta igual nahiago det gainea  
207 eroitzea / porke mikrondasen barrura eroitzen bazaizu gero hori zeinek ostias garbitzen  
208 du? / ezinezkoa da mikroondas bat ondo garbitzea hor gelditzen da beste platereko  
209 hueko hortan dana eztakit zer ez dezu ateratzen ezer / eta hartu / ddio: / hartu behar det  
210 ba hartu katilua / hantxe sukalden ta esaten dezu jode ta oain salaraino jun beharra  
211 dauket / pasillon barrena hortxe a: / prozesiyun bezela a/ prmm:: (prozesio doinua  
212 imitatzen du ahoarekin)/ iritsi salako mahaira kristalezko mahaian jarri ta esango dezue  
213 zegaitikan mutil honek oaindikan ez dittu eskuk katilutikan kendu? / Ba pegauta  
214 dauzketelako / (zaratak) itten dezu fu fu fu fu ta esnia uea: / ta ordun gustatzen zait ya /  
215 lasai lasai hartu / jun despentsa galleta kaja bat hartu / ze galleta Aitziber? / Dinosaurius  
216 tienes? (publikoak) / Dioos galletas dame / galleta hartu eta hartu galleta / bueno hartu  
217 bi / hartu lau / hartu lau eta hortxe ai zeala / bustitzen ta hola ai zeala klaro entretenitu /  
218 eta bapaten / galleta hoiek / ahora eramaten ari zerala / ui: ui: bai bai denok dakigu zer  
219 gertatuko dan ezta? denok dakigu zer dan gainera inebitablea da / inebitablea da / ta  
220 gainera galleta / galleta ez da bapaten eroitzen galletak bazilatu eitten zaittu / pixkanaka  
221 pixkanaka prezipitatzen joaten da pixkanaka pixkanaka baina zuk ezin dezu ezer ein /  
222 badakizu ya desastrea gertatzera dijola / zer ingo dezu ba? ee:: / ezin dezu ezin dezu / ta  
223 ordun bapaten bai / blaust / zea kolakauan hongo nuklear bat / Kristalezko mahai guztia  
224 zisko einda alfonbra dana zisko einda paretak zisko einda tetxua nola iritsi da horraino?  
225 / blaust blaust (onomatopeia) hori da bestela plit (onomatopeia) izango zan blaust / ta  
226 korrika joaten zea sukaldera kutxara baten bila errekueratzeko eroitako galleta baina ez  
227 da berdina / blandinblu bezela geratzen die ue: / zea txerri hankak jatea bezelakoa da hoi  
228 ez gertatzeko ni normalean joango nintzake denda txiki batera / baina klaro etxe ondori  
229 supermerkatu handi hoietako bat dauket / ta supermerkatu handitan galletak egoten dira

230 pasillo handi baten hartzen dezu kaxa bat ta / ue: Andoni Ortuzar / ez galleta kajatan  
231 behar dana baino informazio gehiago dago ze jartzeizu ingelesez frantsesez alemanez  
232 italieraz galletan osagaiak / eta nik ez det hori behar nik badakit galleta bat / galletaz  
233 einda dagola / nik jakin beharra dauketen bakarra da galleta bakoitzan inmertsio  
234 denbora /ulertzen? / Esan nahi det jartzen badu kajan txikilin / kuarto segundos / maria  
235 dorada bi ta apurando / tosta rica ezta beirau ere ezta beirau ere ya ya kajan bertan kajan  
236 bertan puxkauta etortzen zaizkizu marrazkik inda bai oso politak baina puxkauta ya / zer  
237 ein behar det horreki hala bota ta ze? komuna alikatatu? Ez / galleta bakoitzan  
238 inmertsio denbora kitto / ta nik badakit igual / etxen / egongo zaretela abentura zalek /  
239 ez? bizitza hortxe limitea bizitzea gustatzen zaizkizuenak / eta igual galletan partez  
240 gustatzen zaizkizue esnetan bustitzea madalenak / sobauak / bizkotxok / Campurrianak /  
241 ba ojo ojo ze campurriana bat eroitzen baldin bazaizu kolakaura ez du kolakaua edaten  
242 posabasosa bera ere edateizu / Eskerrik asko denoi ojo galletakin.

### 243 **TOL1 (TOLOSA)**

#### 244 **S. Colina**

245 Iaz dena zen festa  
246 ta dena sorpresa  
247 ta kolpetik etorri  
248 zaigu ondoeza.  
249 Ahaztu antsietatea  
250 beldurra, estresa  
251 beste izurrite bat da  
252 umorerik eza.

#### 253 **A. Egaña**

254 Lehenago taza zena  
255 orain da kikara  
256 lehenago zena poza  
257 orain hotzikara  
258 iazko mozorroaz  
259 damutu naiz jada  
260 gero gertatu denan  
261 errudun geu gara.

#### 262 **S. Colina**

263 Zertan zabiltz Andoni?  
264 Atera kalera!

265 Hainbestekoa al da  
266 umore galera?  
267 Zuk ez duzu errurik  
268 hau baita aferaz:  
269 lehen mozerro ta aurten  
270 zomorro bat zera.  
271 **A. Egaña**  
272 Baina ulertu zazu  
273 nik dedan nagiya  
274 suerte txarrak guregan  
275 jarri zun begiya  
276 “Damu dut jauna” ai naiz  
277 hori da egiya  
278 bularrean zulo bat  
279 eiteraino iya!  
280 **S. Colina**  
281 Kalterik ez diozu  
282 eragin inorri  
283 beraz mezu horiek  
284 arren ez igorri  
285 ni gustura bizi naiz  
286 joan ta etorri  
287 zure semaforoa  
288 beti dago gorri.  
289 **A. Egaña**  
290 Hauxe da zoritxarra  
291 etxe ta etxe-ate  
292 ezin ditut gainditu  
293 neretzako kalte  
294 ni ez naiz aterako

295 hau konpondu arte  
296 irtetekotan kutxan  
297 aterako naute.  
298 **S. Colina**  
299 Baina irtengo zara  
300 paparra altua  
301 mozorrotzea duzu  
302 zuk zure patua  
303 iaz Koronabirus  
304 madarikatua  
305 ta aurten Jesukristo  
306 gurutziltzatua.  
307 **A. Egaña**  
308 Nik garunean daukat  
309 kutxa edo kaxa  
310 lehen mahats alea nintzen  
311 ta orain mahats-paxa  
312 adiorik ez Sustrai  
313 ondo-ondo pasa  
314 nik ez det ospatuko  
315 farsa baten farsa.  
316 **S. Colina**  
317 Berriz egon nahi nuke  
318 biak buruz buru  
319 gin-tonic ta kubata  
320 zigarro ta puru  
321 baina ja ezerez bat  
322 bihurtu zaitugu  
323 ta kuadrillan Urkullu  
324 deituko dizugu.

325 **A. Egaña**

326 Orain Urkullu deitzen

327 didate ta tira!

328 Urkullun animoa

329 Urkullun diztira

330 Urkulluren grazia

331 ez al det guztira?

332 Zer egingo diogu

333 Gauzak hola dira.

334 **TOL2 (TOLOSA)**

335 **A. Labaka**

336 Aniztasunaz jarduten degu

337 baina ai gorputz anitzak!

338 Kanean ezin lasai ibili

339 nik behintzat hala deritzat

340 ez dira soilik koxkak, aldapak

341 nahiz farolan argi printzak

342 arkitekturak mugatzen ditu

343 mugimenduak, ekintzak

344 bidean zehar agertuz gero

345 oztopoak ta baldintzak

346 zein den hiritar eta zein ez den

347 zehazten du hirigintzak. (bis)

348

349 Arkitektura ez baita soilik

350 zementua ta harria

351 izan daiteke eskailera bat

352 erdi-erdian jarria

353 oinezkoontzat, gu normalontzat

354 ez dena horren larria

355 gurpildun aulki batentzat izan  
356 daiteke izugarria  
357 izan umea, adinekoa  
358 itsua nahiz elbarria  
359 espazio orok beharko luke  
360 denontzat irisgarria. (bis)  
361  
362 Gu iristeko eraiki dira  
363 horrenbeste bidezidor  
364 ta gu haietan ibiltzen gera  
365 mundua bihurtuz zilbor  
366 baina ertzeko gorputzei ere  
367 gauza bera diegu zor  
368 desoreka hain nabarmena da  
369 ezin da egin entzungor  
370 teoritik praktiketara  
371 hutsune bat daukagu hor  
372 inklusioaz hitz egiten da  
373 ta nork barneratzen du nor? (bis)  
374 **BIL (BILBO)**  
375 **U. Alberdi**  
376 Zazpi Katutik dei bat  
377 eta ze espanto  
378 ez zaigu gertatu ohi  
379 hamaika halako.  
380 Gizon arrakastatsu  
381 batzuk garelako  
382 lehen aldiz egongo  
383 gara jokozen kanpo! (bis)  
384 **M. Sarasola**

385 Deia erantzun dugu  
386 hartuaz atsedean  
387 eztabaidatu behar  
388 ta zenbat hasperen  
389 ezetz esango nuke  
390 orain eta hemen  
391 han ezin da kantatu  
392 Uxue One club man. (bis)  
393 **U. Alberdi**  
394 Hau da hau arrakastak  
395 duen espirala  
396 kantatu ta bihurtu  
397 daiteke birala.  
398 Kontzertua nahi dute  
399 noiz ta ostirala!  
400 Gaztetxeak apur bat  
401 aldatu dirala! (bis)  
402 **M. Sarasola**  
403 Musikari legez gauz  
404 hamaika mutiko  
405 ta hori han ez dute  
406 ta oso begiko  
407 baina guretzako da  
408 hau horren tipiko  
409 zoritxarrez hona ez da  
410 inor etorriko. (bis)  
411 **U. Alberdi**  
412 Nahiz ta teiltupean  
413 har daitekeen babes  
414 ez gaituztela maite



- 415 egiten dut trabes
- 416 gaztetxean badute
- 417 hamaika lanabes...
- 418 Haiek gorriak dira
- 419 baina zuriak ez. (bis)
- 420 **M. Sarasola**
- 421 Ezingo dugu bete
- 422 gaztetxeko gela
- 423 kasu hipotetikoan
- 424 litzake itzela.
- 425 Talde bat sortu dugu
- 426 gure lema horrela
- 427 ikus bedi futbola
- 428 be kultura dela. (bis)
- 429 **U. Alberdi**
- 430 Nahi genuen kontzertu
- 431 eder bat ontzea
- 432 ta gazte proleekin
- 433 ondo konpontzea.
- 434 Kostatzen zait kultura
- 435 gurekin lotzea
- 436 hau da katuek
- 437 lehoiei adarra jotzea. (bis)
- 438 **PAS (PASAIA)**
- 439 **U. Iturriaga**
- 440 Aipatu duzu eta burua
- 441 joan ez zait ba harago
- 442 hautsontzi polit eta txukun bat
- 443 ene alboan badago
- 444 baina dena onetik ez dugu

445 tabakoakin igaro  
446 utzi nahi dut ta egiten dit geroz  
447 eta grazi gutxiago.

448 **A. Egaña**

449 Neri dagokit laroita seiko  
450 txapelketara joatea  
451 belodromoan ni gazte-gazte  
452 eta harmaila betea  
453 zuk ez dakizu ze gozada zen  
454 ai Iturriaga maitea!  
455 Euskaltzaindiko alfonbrai ere  
456 erredurak egitea.

457 **U. Iturriaga**

458 Bai ta neuk ere farre egin dut  
459 atzera einda denboran  
460 badakizu eta badakigu  
461 guztiok Egaña nor dan  
462 baina birikan agertuz gero  
463 gura ez ditugun bi orban  
464 orduan zu bilduko zaituzte  
465 Euskaltzaindiko alfonbran!

466 **A. Egaña**

467 Halaxe da bai Unai diozu  
468 serio edota txantxan  
469 noizbait Egaña bere biriken  
470 mantxa txiki hoiiek etzan  
471 imajinatzen zaitut zu hantxe  
472 hileta hartako saltsan  
473 Unai mesedez kanta ezazu  
474 “Pozikan bizi izan zan”.

475 **U. Iturriaga**  
476 Zu pozik eta ni ere pozik  
477 ez gara geugan kabitzen  
478 baina uztea pentsatu beharko da  
479 ez al didazu aditzen?  
480 Konfinamendu garai horretan  
481 saiakera bat izan zen  
482 egun ta erdi iraun nuen ta  
483 monstroo bilakatu nintzen.  
484 **A. Egaña**  
485 Nik hiru ordu pasa ezker  
486 eskutan a ze dardarra!  
487 “Tabakoa da kaltegarria“  
488 esaeraren indarra  
489 bizi zati bat kentzen duela  
490 dago onartu beharra  
491 baina azkena kentzen du beti  
492 beraz ez da horren txarra!  
493 **U. Iturriaga**  
494 Arrazoibide ukazina  
495 gaur zure hori benetan  
496 egia da ja gu gabiltzala  
497 ridikuluan mugetan  
498 pandemian maskarilla kendu  
499 ta erretzen hasi kaletan  
500 ta ez al zaizu iruditzen zoazela  
501 bazoka bat eskuetan?  
502 **A. Egaña**  
503 Ai pandemia aipatu dezu  
504 hobe aipatu ez bazendu!

505 Ta erretzeko ezin leikenez  
506 musukoa hor mantendu  
507 ibiltzen gera oraintxe erre  
508 gero jarri, gero kendu  
509 baina honekin tabako gustoak  
510 gehiago irauten du.  
511 **AMA (AMASA-VILLABONA)**  
512 **O. Iguaran**  
513 Audioren bat espero nuen  
514 ta isiltasuna dana  
515 ta nik hala ´re ia entzun det  
516 aiene baten aztarna  
517 ze soinu batzuk geratzen dira  
518 gure gorputzean barna  
519 eragiteko oroitzapenak  
520 oinazea edo xarma.  
521 Nik negar hotsa entzuten nuen  
522 egin naizenetik ama  
523 isiltasuna baita oraintxe  
524 gehien eskertzen dedana. (bis)  
525  
526 Baina isiltasun hori sartzean  
527 bi pertsonaren baitara  
528 esan gabeko galderak dabiltz  
529 begiratzuz begitara.  
530 Deserosoa da isiltasuna  
531 eragiten du dardara  
532 batzun ahotsak ez dira heltzen  
533 gure belarrietara  
534 Ametsek zion olatuena

535 adibide bat da hara:  
536 isiltasuna ona da soilik  
537 hautatua baldin bada. (bis)  
538  
539 Esan gabeko ta esan ezin den  
540 horrekin nola amaitu?  
541 Nola itotzen den irtetean  
542 bide gabe mila aipu  
543 hobe bidea zabaldu eta  
544 uhin hoiekin gu blaitu  
545 ahots gabeko horien hitzak  
546 oraindik indarra baitu  
547 isiltasunak uhinak dauzka  
548 nahiz ez gorputzek jarraitu  
549 esan ezin den horren uhinak  
550 gogorren kolpatzen gaitu. (bis)  
551 **ZAL (ZALDIBAR)**  
552 **U. Iturriaga**  
553 Begirada nerabe  
554 haretara bota  
555 eta diferentziak  
556 ez zeuskun inporta  
557 zuk oin Moët-Chandon  
558 ta Viña Alkorta...  
559 Zaldibar da Zaldibar  
560 ta Algorta Algorta (bis)  
561 **J. Uria**  
562 Herri bakoitzak bere  
563 izen ta abizen  
564 ta biak joan gara

565 haunditzen haunditzen  
566 baina ni orain hasi naiz  
567 zurekin harritzen  
568 noiztik zabilta Unai  
569 Algortan bizitzen? (bis)  
570 **U. Iturriaga**  
571 Begiratu ez dekot  
572 gueito kolorea  
573 erdia kobretan dot  
574 eta zuk doblea  
575 ez, ez naz hemen bizi  
576 ez dut ohorea  
577 ni naz supermerkauko  
578 reponedorea. (bis)  
579 **J. Uria**  
580 Beraz atontzen duzu  
581 almazen ta apala  
582 eta aurrera zoaz  
583 Besteok bezala  
584 esaten nuen esan  
585 aibala aibala  
586 karroan esne kaja  
587 asko zenezkala! (bis)  
588 **U. Iturriaga**  
589 Esne kajak hemen  
590 ta hamar kaja ur han  
591 zerbeza eskas batzuk  
592 be tenperaturan  
593 Oro Lujo edangarri  
594 leikenaren muga...

595 Ba honako bategaz  
596 konkistau zintudan! (bis)  
597 **J. Uria**  
598 Ia-ia iritsi  
599 arren irainera  
600 ze aldea dagoen  
601 lehendik orainera  
602 hori geneukan mingain  
603 eta mingainera  
604 zerbeza txarra eta  
605 beroa gainera! (bis)  
606 **U. Iturriaga**  
607 Ta oin zerbezak hotzak  
608 ta geu gagoz bero  
609 halako enkontrurik  
610 ez neban espero  
611 atzeko aldean itxaron  
612 bost minutu edo  
613 Ken Zazpin Ilargia  
614 kantaukotzut gero. (bis)  
615 **J. Uria**  
616 Ken Zazpin Ilargiak  
617 ai lehen ze indar!  
618 Berriz elkartu gara  
619 Algorta, Zaldibar  
620 telebilera bat dut  
621 ta orain joan behar  
622 tori nire tarjeta  
623 eta deitu bihar. (bis)